

Mugaz gaindi Europatik Euskal Herrira

**Argitxu Etxandi
Europako Parlamentuan, Bruselan 2014an**

Lan hau Aralarreko eurodipututu Inaki Irazabalbeitia
Fernandezen enkarguz ·Ezkerraberi Fundazioaren asmori jarraituz
eta Udalbiltzaren dirulaguntzarekin egin da



The Greens | European Free Alliance
in the European Parliament



UDALBILTZA

Aitzin solasa

Txosten honen helburua mugaz haraindiko lankidetzaren aztertzea da, Euskal Herriaren lurralde garapenaren sustatzeko tresnak agerian emateko, kontuan hartuz Euskal Herria errealitate bat dela, errealitate soziala, historikoa, kulturala eta ekonomikoa. Eta errealitate guztien antzera, egitura bat beharrezkoa du funtzionatzeko.

Mugaz haraindiko lankidetzaren helburua mugaren gaitztea da. Euskal Herriko mugaldeko bi sistema ezberdinen kudeatzea areto handienetariko bat da. Horrez gain, lurralde desoreka handiak agertzen dira Iparraldea eta Hegoaldearen artean, bereziki Pirinioen inguruan.

Mugaz haraindiko tresnak sortzen hasi ziren 2. Mundu Gerraren ostean, preseski Europa mailako desorekak gutxitzeko eta kohesioaren sustatzeko Europa mailan, eta azken finean, Europaren integrazioaren alde aritzeko. Garai horretan, Europa osoa berriz eraikitzea zen, bai ekonomia mailan, baita politika mailan ere. Hau dela eta, kanbioak garatzen hasi ziren eta tokiko agintariak elkarren artean batzen, mugak gaitzteraino. Alabaina, hasieran mugaz haraindiko lankidetzak hori legez kanpokoa zen, esparru legalik ez baitzen oraindik.

Europar Kontseiluak¹ ditu mugaz haraindiko tresnak eskaini lehenik. Kontua da erakunde honek ez duela diru anitz eskubide horien gauzatzeko. Europar Batasunak (EB) aldiz diru gehiago duenez, hainbat diru laguntza programen bidez finantzatu ahal izan ditu mugaz haraindiko proiektu ezberdinak.

Pixkanaka-pixkanaka, Europar Batasunak ere sortu du mugaz haraindiko lankidetzarako esparru juridikoa. Hain zuzen, Europar Batasuneko Itunaren 4.artikuluaren baitan, euroeskualdea oinarritu daiteke Estatu kideen autonomia instituzionalaren printzipioan.

Erran behar da Europar Batasunaren mailan eskualdeek toki handia hartzen dutela, haiek dutelako Europar Batasunaren politikaren %70-a kudeatzen.

Kontu horren aurrean, jakina denez, Estatu kideek beldur dute subiranotasuna galtzea baita beren kontrola lurralde-politikarengan. Era berean, beldur dute Europar Batasunak ere botere batzuk berreskura ditzan.

1 Ez da nahastu behar Europar Batasunarekin, Europar Kontseilua askoz zabalagoa baita, nazioarte mailakoa. Europa geografiko mailako 47 Estatu biltzen ditu. 2. Mundu gerraren ostean sortua izan da eta 1950eko Giza eskubideen Europako Konbentzioan oinarritzen da; Estrasburgoko Giza Eskubideen Gorteak du testu honen betetzea bermatzen. Erakunde hori interesgarria da preseski mugaz haraindiko lankidetzak bermatzen baitu baita giza eskubideren defentsa, batez ere herri gutxituen babesa. Europar batasuna aldiz gehiago xede ekonomikoetan oinarritzen da, zirkulazio librean oinarritzen den merkatu batuan alegia. Halere, Europar Batasuneko Estatu kide guztiak Europar Kontseiluaren kide dira aldi berean, banaka.

Gaur egun, Euskal Herriari dagokionez, proiektua izan daiteke zazpi probintziak biltzen dituen euroeskualde baten eraikitzea. Alabaina, beste mugaz haraindiko lankidetzaren proiektu anitz eraiki daitezke, arlo eta eremu zehatz batzuen inguruan. Ikerketa honek proiektu ezberdinei erantzuteko xedea du.

Izan ere, mugaz haraindiko tresnak azaldu aitzin, lehen bai lehen azpimarratu behar da zuzenbidearen papera prozesu baten sendotzera besterik ez dela, prozesua jadanik martxan delarik. Gizartearen mobilizazioa eta kohesioa baita borondate politikoa dira alde aurreko baldintzak. Baina baldintza horiek beteak diren kasuan, zuzenbidea erabili daiteke prozesu horren sendotzeko, hainbat egitura juridiko eskainiz².

Hau dela eta, beharrezkoa da lehen bai lehen helburuen finkatzea, muga-gaindiko egitura mota bati ala besteari pentsatu aitzin.

Zentzu horretan, hauek dira lehen-lehenik egin behar liratekeen galderak:

- Behar ote dugu egitura legalik? Zertarako?
- Ez ote da aski elkarrizketarako plataforma baten sortzea mugaldeko agintarien artean?
- Behar ote dugu nortasun juridikoa duen egitura bat ekintza konplexuagoen gauzatzeko? Kasu horretan, publikoa ala pribatua litzateke?

Oro har, kontuan hartu behar da bi mugaz haraindiko lankidetzaren mota ezberdin daudela, helburu ezberdinei jarraitzen dutenak:

- Lehenik, mugaz haraindiko lankidetzaren operatiboaren xedea mugaldeko zerbitzu publikoen eta ekipamenduen kudeaketa da nagusiki. Hain zuzen, lankidetzaren honen helburua muga batean zerbitzu ala ekipamendu publiko bat martxan jartzea da, hainbat finantzaketa tresna, parte-hartze modu eta langile kontratu ezberdin erabiliz mugaldean.

Horrelako proiektuetan, teknika eta finantza mailako erabakiak besterik ez dira hartzen, egokitasunaren arabera, anitzetan interes politikorik gabekoak –adibidez uraren ala zaborren kudeaketa, garraioak-. Errate baterako, horrelako lankidetzaren helburu bakarra teknikoa da, hots, prezio/kalitate/fitagarritasun formula hoberenaren aurkitzea.

Haatik, lankidetzaren mota horrek diru baliabide asko galdetzen ditu eta haien operazioak konplexuak izan daitezke. Ondorioz, arrisku juridikoak hartzen ohi dira eta ondorio finantzario batzuk ere izan daitezke. Hau dela eta, gatazka horien konponbidea aurreikusitako behar da.

² Karl-Heinz LAMBERTZ-ek azaldu duen bezala egindako elkarrizketan.

- Bigarrenik mugaz haraindiko lankidetzak estrategikoak lurralde garapena du xede nagusizat, eskema orokor bat bilatzen delako mugaldeko lurraldearentzat³. Horrelako egiturek udalen eta herritarren beharrei erantzun dezakete, hainbat gai landuz. Jakina denez, horrelako proiektu estrategikoek helburu politiko batzuei jarraitzen dute. mugaz haraindiko gobernu moduko baten sortzea dute helburutzat. Ondorioz, Estatuak ez dute horrelako egituren legaltasuna soilik ikertuko baizik eta haien zilegitasuna ere. Bestalde, horrelako proiektu batek gizartearen parte hartze minimo bat eskatzen du, baita kontrola demokratiko bat – izan zuzena ala ordezkarien bidez-, epe luzerako erabaki pisuak hartzen baitira. Mugaldeko bi lurraldeek garapenerako estrategia komuna dute, eta kasu anitzetan estrategia integratua.

Horrelako lankidetzak ez du baliabide material handirik eskatzen, nagusiki baliabide intelektual eta politikoak erabiltzen baitira. Etorkizuneko ikerketetan eta ikerketa kualitatiboetan oinarritzen da, besteak beste. Zentzu horretan, eragileek ez dute arrisku handirik hartzen lege mailan ekintza juridikoak eramaterakoan. Proiektua gaizki asmatua eta eginezina dela agertzen bada ere, ez dute erantzukizunik jasotzen lege mailan; haatik, sinesgarritasuna galtzeko arriskua hartzen dute eta ez da gutxi.

Azken finean, erran dezakegu erabakien hartzeko tresna dela, hautazko eraikitze bat lortzeko eta horretarako ardatz nagusiak finkatuz. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da lankidetzak estrategikoak zuzenbide mailan zigortu daitezken eskubide eta betebeharrak gutxi sortzen dituela.

Mugaz haraindiko lankidetzak estrategikoa delarik xedea, elementu asko aurre ikusi behar dira. Proiektu globala da, ala gutxienez sektore anitzak kontuan hartzen dituen. Horrela, lankidetzak bat sortzen da mugaldeko Estatuaren peko diren lurralde erakundearen artean. Ekintza komunak egiteko aukera da, baina bakarrik komunetan dituzten gaitasunetan oinarrituz⁴. Errate baterako, mugaz haraindiko lankidetzak ez du gaitasun berririk sortzen. Hain zuzen ere, mugaldeko lurralde erakundeek gaitasun ezberdinak dituztenez, beren arteko gaitasun txikienean oinarritu behar da. Kotua da, nola mugaldeko lurralde erakundeek gaitasun oso ezberdinak dituzten, zaila agertzen dela beren arteko gaitasun komunaren definitzea -batez ere, Espainiako Autonomia Erkidegoek botere legegilea baitute, Iparraldeak ez bezala-. Halere, agertzen da gaitasun eremua baino arloa dela garrantzitsua funtsean.

Edonola ere, mugaz haraindiko lankidetzak estrategikoaren kasuan, zilegitasun handiagoa eraikitzen da maila-anitzeko gobernantza lortzen delarik, hots, gaitasun

3 Adibide batzuk: GECT Lille-Kortrijk-Tournai (FR-BE), Association de l'agglomération transfrontalière du Pôle Européen de Développement (FR-LU-BE), GLCT Eurodistrict Regio Pamina (FR-DE), Lille-Grootstad, Agglomération genevoise, Baiona Donostia euro-hiria.

4 «Principe du plus grand dénominateur commun» deitzen da erdaraz.

ezberdinak dituzten lurralde erakundeak batuz. Hain zuzen ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoak (NFE) botere legegilea dutenez, mugaz haraindiko lankidetza erakundean parte hartzen balute udal batzuen bidez, zilegitasun demokratiko handiagoa eskainiko lukete. Gainera, errazago litzateke lankidetza eremu zabalagoaren lortzeko.

Kasu horretan, beste arazo bat agertzen da gaitasunen jatorri ezberdinari dagokionez. Eman dezagun, kasu anitzetan Hegoaldeko Autonomia Erkidegoek dute gaitasun bat eta Iparraldearen kasuan aldiz, frantses Estatuak du gaitasun hori. Horrelako kasuen konpontzeko, ezin da nazioarteko zuzenbide publikoa erabili ez delako bi Estaturen arteko kontua –baizik eta Estatu bat eta lurralde erakunde baten artekoa- ez eta lankidetza deszentralizatua, ez delako bi lurralde erakundeen arteko kontua. Beraz, zaila agertzen da horrelako egoera bati aterabide baten aurkitzea. Eremu “grisak” deitzen dira, harreman asimetrikoa delako –Estatua eta lurralde erakunde baten artekoa-.

Garrantzitsua da gaitasunak ez bakoitzak bere aldetik ala banaka erabiltzea baizik eta elkarrekin, kolektiboki. Bestela, proiektu puskatuak egingo lirateke, koherentziarik gabekoak.

Dudarik gabe, mesfidantza handia agertzen da Estatu batzuen partetik mugaz haraindiko lankidetza estrategikoen aurrean, bereziki nazio gutxituen kasuan⁵. Horretarako, lurraldearen kohesioa eta gizartearen inplikazioa dira alde aurreko baldintzak. Baitezpadakoa izango da eragile sozio-ekonomiko eta kultural guztien parte hartze aktiboa. Zentzu horretan, kontuan hartu behar dira Euskal Herriak jadanik dituen garapenerako tresnak, hainbat arlotan⁶.

Hori dela eta, muga haraindiko egitura bat sortu aitzin, hurrengo galderari erantzun behar liekete: zeintzuk lirateke Europak eskaintzen dituen mugaz haraindiko lankidetzarako tresna ezberdinak? Zeintzuk dira Europako euroeskualde ezberdinak, haien eskumenak eta funtzioak?

Europa eta nazioarteko tresnak aztertu eta (I), beharrezkoa da Europako euroeskualde ezberdinen esperientzien aztertzea, Euskal Herrira ideien erakartzeko gisan (II).

⁵ Aski da begiratzea Espainiaren ukoa Madrileko Itunaren protokoloen aurrean, Ibarretxe Planaren ukoa, Udalbiltzaren auzia, Iparraldeko lurralde erakundearen ukoa, etab.

⁶ EAE eta NFEren ordezkariak nazioartean, Bidasoa-Txingudi partzuergoa, Baiona-Donostia euro-hiria, Iparraldeko Garapen Kontseilua eta hautetsien Kontseilua, sindikatuak, Ikastolak, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Euskal Kultur Erakundea, etab.

1- Euskal Herriko lurralde lankidetzarako tresnak

Nahiz eta Europar Kontseilua lehen a izan den mugaz haraindiko lankidetzaren arautzen (B), Europar Batasuna ere zaio da gaiari, bereziki proiektuen finantzazioa bermatuz (A). Ahaztu gabe nazioarteko itun batzuek ere aukerak eskaintzen dituztela (C).

Edozein gisaz, figura juridikoa hautatu aitzin, lehen bai lehen, hurrengo galderak egin behar lirateke:

- Nortzuk lirateke mugaz haraindiko lankidetza erakundearen kideak?
- Pertsona pribatuak ala publikoak ote dira?
- Zein dira haien egitasmoak eta zein baliabide dituzte?
- Ondorioz, mugaz haraindiko lankidetza erakundeak nortasun juridikoa behar ote du?
- Ez ote da nahikoa mugaz haraindiko konbentzio baten izenpetzea, nortasun juridikorik gabekoa?

Horrela, behin proiektua finkatu eta, figura juridikoa aukeratu daiteke.

A- Europar Batasunak sortutako tresnak

Ezer baino lehen, azpimarratu behar da Lisboako Itunak⁷ alde aurreko baldintza batzuk eskaintzen dizkiola Euskal Herriari, bere instituzionalizaziorako. Errate baterako, alde batetik aniztasun kulturala ezagutzen du eta autodeterminazio kontzeptua ez du ukatzen. Bestetik, subsidiaritate printzipioa Europako eskualdeei aplikatzen du. Printzipio horren baitan, Europar Batasunak eragiten du arlo batean Estatukideak ezin duenean bakarrik eragin. Berdin, printzipio hau Estatu eta eskualdearen artean aplikatu behar litzateke.

Alabaina, nahiz eta subsidiaritate printzipioa eskualde mailan aplika daitekeen, badirudi praktikan tresna hau ez dela eraginkorra agertzen momentuko, Estatu kideek lehentasuna dutelako Europar Batasunaren barruan.

Hala eta guztiz ere, eskualdeek paper handia jokatzen dute Europar Batasunean eta honek du mugaz haraindiko lankidetza finantzatzen⁸. Zentzu horretan, oroitarazi behar da Europar Batasunak Irlandako bake prozesuan jokatu duen papera, PEACE programen bidez⁹. Programa honen egitasmoetarik bat

7 □ 2009-tik Europar Batasuna Lisboako Itunean oinarritzen da.

8 Ikus : I- A) Finantzazioa.

9 Europako PEACE programak 90 hamarkadatik aurrera Irlandako bake prozesua sustatu dute, baita FMI-ren laguntzarekin. Programaren azken atala jaz bukatu da (PEACE III, 2007-2013).

mugaz haraindiko lankidetzaren sustatzea zen Ipar eta Hego Irlandaren artean. Alderantziz, adierazgarria da bake prozesuaren eragina lurralde kohesioaren eraikuntzan, Irlandako esperientzia begiratzuz ikusi daitekeen gisan. Euskal Herrira erakar daiteke eredu hori, baina iduriz Europar Batasunak ez du horrelako egitasmorik¹⁰.

Oro har, Europar Batasunaren esparruan bi mugaz haraindiko tresna daude, bata pribatua, bestea berriz publikoa, GEIE eta GECT izenekoak.

A.1- GEIE (Groupement européen d'intérêt économique).

Europar Batasuneko arautegi batek sortu duenez¹¹, figura hau Europar Batasuneko eremu osoan erabili daiteke. Elkarre modukoa da, irabazi-asmorik gabekoa.

Lehen bai lehen azpimarratu behar da mugaz haraindiko lankidetzaren zuzenbide pribatuan oinarritzen den orotan bezala, nahiko erraza dela ezartzea –kontratu moduko bat egiten da-. Baina kontua da ekintzen bideratzeko mugatua izan daitekeela, batez ere kideek ezin dutelako ondare komun bat kudeatu.

Figura honek ekonomia arloko ekintzen erraztea eta garatzea du xede nagusizat.

Edozein pertsona sar daiteke egitura horretan, izan pertsona fisiko ala juridiko, publiko ala pribatu. Gainera, nola tresna europarra den, Europar Batasuneko Estatu kide ezberdinetakoak izan daitezke.

Baina badirudi GEIE tresna praktikan erabilia izan dela mugaz haraindiko lankidetzarako ez zenean beste figura bereziturik horretarako.

Bestalde, GEIEren egoitza Europar Batasuneko Estatu kide batean kokatu behar da, GEIE osatzen duten kideetarik baten Estatuan. Horrela, Estatu horren legea aplikatzen zaio eta Europar Batasuneko ondotik, beharrean.

Orain, arazoa da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Irlandaren kasurako erabiltzen zen 1968/2006 Erregelamendua deuseztatu duela.

¹⁰ Inaki Irazabalbeitia eurodiputatuak galdera idatzi bat egin zion Europar Batasuneko Batzordeari, ikusteko zer zion Bake Foroari buruz. Bere erantzunean, Batzordeak erreferentzia egiten zion Catherine Grèze eurodiputatu berdeak egindako galderari(<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=WQ&reference=E-2013-006720&language=EN>). Honek galdetzen zuen zergatik EBk finantzatu duen Irlandako prozesua eta ez Euskal herriarena. Batzordeak erantzuten dio ez duela tresnarik ezarri Euskal Herriko bake prozesua diruz laguntzeko, Espainiak duelako gaitasuna maila horretan. Beraz, Espainiak eskatu lezake Europar Batasuneko finantzazio funts baten erabiltzea bake prozesurako.

¹¹ 1985-eko ekainaren 25-eko CEE/2137 erregelamendua.

GEIE egiturari aplikatzen zaizkion tramiteak nahiko errazak dira eta bere kudeaketa administratiboa malgua da.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da GEIEren gaitasunak ekonomiari mugatzen direla. Errate baterako, ezin du lan administratiborik egin adibidez, ez eta zerbitzu publikorik kudeatu eta Estatuak ezin dio proiektuen kudeaketa bat eginarazi.

Edonola ere, figura honek mugaz haraindiko lankidetzarako aukera ukaezina eskaintzen du ekonomia mailan. Espainian, lege batek Europako erregelamendua azaltzen du¹², baita Frantzian ere¹³. Nagusiki enpresentzat egina da, ekonomiaren sustatzeko. Baina erregelamenduaren 4.artikuluak dio “beste zuzenbide publiko ala pribatuko egiturek” parte hartu dezaketela. Beraz, badirudi lurralde erakunde batek ere parte hartu dezakeela, nahiz eta ez den lehen helburua¹⁴. Edonola bere kideen gehiengoa ekonomiaren arlokoa da. Hauek dira GEIE egituran partu hartu dezaketen pertsona fisikoen lan arloak: industria, merkataritza, artesia, nekazaritza, ala ofizio liberalak. Honek ongi erakusten du kideek ekonomiari lotuak izan behar dutela¹⁵. Eman dezagun, GEIE-ren esparruan ezin da ikerkuntza egin ala ingurumenaren babesaren alde arizan.

Oro har, erran daiteke GEIE figura pribatua interesgarria izan daitekeela mugaz haraindiko lankidetzara operatiboa baio haratago joateko, lurraldearen gobernantza landuz ekonomiaren aldetik.

Adibideak:

1- GEIE EURO 3

Lille-Kortrijk-Tournai Euro-metropolaren mailan. GEIE figura aukeratu zuten 1991-ean preseski ez zegoelako mugaz haraindiko lankidetzarako bete figurarik orduko. Haien xedea ekonomia mailan lan egitea zen. Horretarako, ez dute GECT ez eta GEC figura aukeratu, elkarrekin eta merkataritza ganbarek ezin ukango zutelako parte hartu -hau da, hain justu, GECT figuraren akats nagusia-.

¹² Ley núm. 12/1991 de 29 de abril de 1991. Lege horrek erregelamendua osatzen du, hots, erregelamenduan elementu bat eskas denean ala argi ez denean, lege horri begiratu behar zaio.

¹³ Loi n° 89/377 du 13 juin 1989, J.O.R.F. 15 juin 1989, p. 8101.

¹⁴ Frantses gobernuak berak aitortu zuen GIE –*groupement d'intérêt économique*- antzeko egituraren kasuan. Hala ere, Frantziaren Estatu Kontseiluaren baimena lortu behar da. Suposatzen da gauza bera litzatekeela GEIE egituraren kasuan.

¹⁵ “Le droit appliqué à la coopération interrégionale en Europe”, Ouvrage collectif sous la direction de la Commission de l'Union européenne (DG XVI) et de l'Assemblée des Régions d'Europe, L.G.D.J.1993.

2- GEIE Bihartean

Euskal Herriaren mailan 2010-ean sortutako egitura da, Baiona eta Gipuzkoako merkataritza ganbaren artean, enpresen laguntzeko mugaz haraindiko lankidetzaren inguruan. Nahiago izan zuten GEIE egitura GECT baino, azken honek tramite gehiago dituelako eta bere sortzea luzeago delako –baina azken erreformak muga horiek gainditu ditu-.

3- GEIE Agence transfrontalière de l'Eurocité basque

1997ko otsailaren 24an sortutako egitura da. Bere egoitza Donostian kokatzen da. Hauek dira bere kideak:

- Gipuzkoako foru aldundia
- Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkargoa
- Bidasoa-Txingudi Partzuergoa

Lurralde gobernantza egitura honen helburua bere kideen arteko lankidetzaren eta beraien arteko harremanen hobetzea da.

A.2- GECT (Groupement européen de coopération transfrontalière).

GECT egiturak Europar Batasuneko Estatu ezberdinetako tokiko agintarien elkartzea ahalbidetzen du, mugaz haraindiko ekintzen bideratzeko. Egitura sendoa da, nahiko autonomia eta irekia. Hain zuzen, nortasun juridikoa du baita finantza autonomia. Badirudi egitura oso egokia dela proiektu anitzentzat. Orotara, Europar Batasuneko lurraldearen %20-a biltzen du, 10 milioi herritar alegia.

Hauek dira GECT-ren kide izan daitezkeen erakundeak:

- Estatu kideak
- Lurralde erakundeak
- Tokiko lurralde erakundeak –diputazio/departamenduak eta udalak-
- Kontratazio publikoako gai diren pertsonak¹⁶
- Esandako pertsonen arteko elkarteak

Azpimarratu behar da GECTaren kideak pertsona publikoak dira ala haien arteko elkarteak. Izan ere, kide horiek gutxienez Europar Batasunaren bi estatu ezberdinetakoak izan behar dira.

¹⁶ Europar Batasuneko 2004/18/CE erregelamenduan izendatuak direnak, hots, Estatuak, lurralde erakundeak eta enpresa publikoak.

Ohartu daitekeenez, GECT figura lurralde ordezkartzan oinarritu daiteke, izan udalen bidez ala legebiltzarra duten lurralde erakundeen bidez. Horretan da noski figura interesgarria, zilegitasun demokratikoa eskaintzen baitu.

Horrez gain, badirudi GECTk misio oso zabalak ukan ditzakeela. Hain zuzen, haien xede nagusia lurralde lankidetzaren sustatzea da, kohesio sozio-ekonomikoaren indartzeko gisan. Dударik gabe, ezin dira haien gaitasunak baino haratago joan eta haiek idatzitako konbentzioa eta estatutuak errespetatu behar dituzte.

Gorago erran bezala, GECTk nortasun juridikoa du. Gainera, nortasun hori, Estatuak bere erakundeei eman ohi duen nortasuna baino zabalagoa da. Horrela, GECTk ondasun korporalak eta higiezinak erosi ala besterendu ditzake, baita auzi batean parte hartu.

Bestalde, GECTk barne antolaketa zehatza dauka: zuzendariak ordezkatzan du GECT eta bere izenean ekiditen, Biltzar Nagusiak aldiz GECTaren kideak ordezkatzan ditu. Antolaketa hori erregelamenduak inposatzen du¹⁷.

Europar Batasunako funtsek dute GECT egituren finantzazioa bermatzen. Zentzu horretan, jakin behar da Europar Batasuneko Estatu kide batek parte hartzen badu GECT batean kudeaketa bat delegatuz, orduan Estatu horrek ukango du erantzukizuna diru mailan¹⁸.

A.2.1 Oinarri juridikoa

Europar Batasuneko 1082/2006 erregelamenduak arautzen du¹⁹ eta Europar Batasuneko itunaren 159-3. artikuluan oinarritzen da. Nahiz eta hautazko tresna izan, GECT aukeratzan denez gero, erregelamendu horren elementu guztiak derrigorrezkoak bihurtzen dira.

Jakin behar da GECT sortzen duen erregelamenduak ez duela Europar Batasuneko Estatuaren lege ezberdinen arteko armonizazio bat sortzen. Hain zuzen, erregelamenduaren arauak Estatu mailako legegari gehitzen dira. Ondorioz, lehenik erregelamenduaren arauak aplikatzen dira eta Estatu bakoitzaren legea osagai bihurtzen da.

¹⁷ GECT ekonomiko askok porrot egin dute batez ere ez zutelako maila anitzetako osaera.

¹⁸ ikus 1082/2006 erregelamenduaren 14. artikulua.

¹⁹ Europar Batasuneko Erregelamenduak zuzenean aplikatzen diren arauak dira, Estatuaren transposizioerik behar ez dutenak. Halere, Estatuak beren legeria eguneratu behar dute erregelamendua ongi aplikatua izan dadin, trabarik gabe. Erran daiteke GECT-ri aplikatzen den zuzenbidea anitza da: alde batetik, aplikatzen zaio erregelamendua eta bestalde egitura sortzen duen kontratua eta estatutuak. Gainera, Estatuaren legea osagarri izan daiteke, erran nahi baita aplika daitekeela beste legeek puntu bat arautzen dutenean.

da merkataritza egitea, irabazi-asmorik gabeko tresna delako. Beraz, estatus publikoa egokiago agertzen zen estatus pribatua baino.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta zuzenbide publikoko egitura izan, GECTk ez du subirano eskumenik, ez eta botere publikoen prerrogatibarik. Bestela erranda, ezin du justizia ala polizia botererik ukan ez eta zerga bildu, botere horiek Estatuari dagozkiolako. Erregelamenduaren sarreran agertzen da muga hau. Azaldua da tokiko aginteeek dituzten botere publikoak -polizia boterea eta arauen egiteko boterea- ezin direla kontratu batean sartu. Alta, estatus publikoa ukaiteak berez pentsa arazten zuen botere publikoak ukango zituela. Baina ez da hala. Horrez gain, debekatua zaie Estatuaren interes orokorrari lotutako funtzioen ukaitea. Alta, printzipioz erakunde publikoen ekintza gehienek Estatuaren interes orokorraren babesa dute helburutzat.

Hala eta guztiz ere, GECT egiturak badauzka botere publiko batzuk, nahiz eta oso mugatuak diren. Hain zuzen, bi eskumen mota ditu nagusiki, zerbitzuen ematea eta estimulu ekintzak.

Orokorki, kontratazio publikoetan parte hartu dezake²³. Polizia botere mugatua du, "prestazio polizia" deitzen dena. Errate baterako, GECTk ezin du partikularren estatus juridikoa mugatu, hots, ez dauka zigortzeko botererik ez eta jabetzaren kentzeko.

Hala ere, erran behar da bere botere publikoak mugatuak badira ere, GECT tresna egokia bezala agertzen dela, bereziki auzo diren eskualdeen arteko mugaz haraindiko lankidetzarentzat eta beraz, Euskal Herriarentzat.

A.2.3- GECT egituraren kontrola

GECTk kontrola batzuk jasotzen ditu, bai Europar Batasunarengandik, baita Estatu kideengandik.

²³ Iñigo SANZ, *op. cit.*

23 2004ko martxoaren 31ko Europako zuzentzarauk (2004/17/CE, 2004/18/CE) honela definitzen du kontratazio publikoa: diru interesa duten idatzizko kontratu batzuk dira, kontratazio aginte publikoen eta pertsona pribatu zein publikoen artean. Kontratu horiek 3 helburu mota ukan ditzakete agintari publikoarentzat:

- obrak egitea
- zerbitzuak ematea
- hornikuntza

Europar Batasunaren kontrolak:

Hain zuzen, Europar Batasunaren mailan, bi kontrola mota izan daitezke: bata jurisdikzionala, bestea aldiz politikoa:

Lehen kasuan, Europar Batasuneko eta Estatu mailako epaileek dute GECT kontrolatzen²⁴.

Bigarren kasuan aldiz, ez du epaile batek kontrolatzen baizik eta Europar Batasuneko Batzordeak edo Parlamentuak. Eman dezagun, Estatu kide batek ez badu bere eskualde bat GECT baten sortzen uzten, orduan Europako Batzordeak Estatu kideari Erregelamendua aplikatzea inposatzen dio.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta Europar Batasunak kontrolatzen duen, GECT ez da Europar Batasunaren menpeko tresna. Europar mailakoa da, baina soilik bere kideen xedeei jarraitzen du.

Estaturen kontrolak:

Baina GECT egituren kontrola ez da horretan gelditzen, Estaturen mailan beste kontrola batzuk izan daitezkeelako, epailearen kontrolari gehitzen direnak. Beraz, orotara bi kontrola mota izan daitezke Estatu mailan ere, bata jurisdikzionala²⁵, bestea aldiz administratiboa. Erran behar da kontrola hori oso zabala izan daitekeela, Estatuak kontrola dezaketelako bai GECT egituren sortzea, baita ere bere funtzionamendua. Teknikoki, Estatuak 3 hilabete dauzka erantzun baten emateko GECTaren sortzeari dagokionez. Isilik egoten bada 3 hilabeteren buruan, suposatzen da erantzuna baikorra dela.

Laburbilduz, ikusi dezakegu kontrola legaltasunaz haratago joan daitekeela, egokitasun kontrola bihurtuz. Errate baterako, Estatuak kontrola dezake GECTk bere legearekin bat egiten duen (legaltasun kontrola), baita ideia egokia ote den (egokitasun kontrola):

Legaltasun kontrola: Alde batetik, legaltasun kontrola egiten duenean, Estatuak begiratzen du ea GECT konforme den erregelamenduarekin, baita bere

²⁴ Bi errekurtsio mota nagusi dira epaile nazionalaren aurrean: hauste errekurtsioa, EBko arau bat ez delarik errespetatua eta aurreiritzi galdera, ikusteko ea arau nazional batek bat egiten duen EBko arau batekin, ala zalantza bat denean epaile nazionalaren aitzinean EBko arau bati dagokionez.

²⁵ Kontrola hau epailearen aurrean egiten da, bakarrik gatazka bat denean GECTaren funtzionamenduari dagokionez. Lehenik, Estatu mailako epaileak du kontrolatzen. Ondotik, sekula zalantza bat baldin badauka, aurretiazko galdera bat egin beharko lioke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari.

legearekin. Horretarako, kontuan hartzen ditu GECTren gaitasun eta betebeharrak.

Egokitasun kontrola: Kontrola hau oso zabala izan daiteke eta arriskua da Estatuak eskumeneko boterea erabili dezatela. Hain zuzen, egokitasun kontrolari dagokionez, Estatuak begiratzen du GECT egiturak interes orokor ala publiko bati jarraitzen duen. Botere horren bidez, Estatuak GECTaren sortzea ala bere erabaki eta ekintzak debekatu ditzake.

Azpitarratu behar da normalean deszentralizazio azkarra den Estatuetan eta bereziki lurralde erakunde batzuk botere legegilea dutenean, Estatuak jarrera baikorra ukan ohi dutela. Ez da Frantziaren kasua noski, lurralde botereen banaketa zentralizatua duelako, nahiz eta 2003ko Konstituzio erreformak hainbat arau sortu dituen mugaz haraindiko lankidetzak hobetzeko xedearekin. Haatik, Ekialdeko herri batzuk -adibidez Polonia edo Hungaria- jarrera anitzez irekiagoa dute.

Alemanien kasuan berriz, Funtseko Legearen 32. Artikulua baitan, Länderrek nazioarteko gaitasunak dituzte eta erabili ditzakete mugaz haraindiko lankidetzaren esparruan. Baina ez da Estatu guztietan horrela eta anitzetan, bakarrik Estatuak dituzke nazioarteko gaitasunak - mugaz haraindiko lankidetzaren mugatzeko erabili ditzaketenak-.

Espainiak aldiz, nahiz eta deszentralizazio azkarra duen, zailtasunak ukan ditu mugaz haraindiko lankidetzaren onartzeko -batez ere Madrilera lotutako protokoloak ez dituelako sekula izenpetu nahi izan-. Gainera, Estatuaren kontrola oso azkarra izan ohi da, kanpoko ekintza guztiak lotzen baititu nazioarteko hitzarmenen egiteko gaitasunari. Errate baterako, Espainia beldur da bere lurralde erakunde kanpoko ekintzak bere atzerriko politikaren aurka joan daitezela. Ondorioz, ez da bakarrik lege mailako kontrola, baizik eta kontrola politikoa.

Alabaina, Estatu batzuen auzitegi konstituzionalak ukan dute eskualdeen botere horren defendatzeko parada²⁶.

Oro har, agertzen da badela lehia gogor bat Estatu eta eskualdeen artean. Hala eta guztiz ere, baitzepadakoa da egokitasun kontrola horien mugatzea demokrazia babestu nahi bada, ez daitezela arbitrario bihurtu.

²⁶ Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 165/1994 erabakia: Autonomia Erkidegoen kanpoko ekintzetan aritzeko gaitasuna aitortzen du. Italiaren Kasuan berriz, 189/1987 erabakian, Auzitegi Konstituzionalak ere aitortzen du gaitasun hori eta gehitzen du zatiketa bat: nazioarteko harremanetan aritzea alde batetik eta mugaz haraindiko lankidetzan bestetik. Nazioarteko ekintzak ez dira juridikoki lotesleak, nahiz eta balio politiko azkarra duten; mugaz haraindiko lankidetzaren esparruan aldiz sartzen dira kontu sozial, ekonomiko eta kulturalak, juridikoki lotesleak. Ondorioz, Estatuak mugaz haraindiko lankidetzak gehiago zaindu ohi dute.

A.2.4- GECT egituraren balantzea²⁷

Azpitarratu behar da Europar Batasunak ez duela tresna orokor bat baizik eskaintzen. Hain zuzen, figura juridiko berri bat sortzen du mugaz haraindiko lankidetzaren mailan baina ez du xehetasun handirik ematen GECTaren ezaugarriei buruz. Erregelamenduak bakarrik zehazten du GECTk nortasun juridikoa duela, gutxienez Europar Batasuneko bi Estatuetakoa lurralde erakunde behar direla GECTaren osatzeko, ontasun batzuk eskuratu ala saldu ditzakeela, etab. Baina elementu horiek oso orokorrak dira. Ondorioz, Estatu bakoitzak gehituzake bere baldintzak.

Izan ere, GECT Europar Batasunaren mailako tresna denez gero, mugaz haraindiko lankidetzaren ahalbidetzen du, Estatuak nahi ez badute ere – batez ere GECT sortzeko ez dute baimena ematerik-.

Oro har, erran dezakegu GECT egituraren bidez, mugaz haraindiko lankidetzaren instituzionalizatzerara doala. Horrek erran nahi du tokiko agintariak parte hartu dezaketela afera publikoetan eta ez bakarrik Estatuak.

Horrez gain, GECT politika batzuen formulatzeko esparrua bihurtzen da²⁸ eta argi da ez dituela tresna operatibo hutsak eskaintzen. Ondorioz, ez da harrizkoa Estatuak saiatzen badira inplikatzeko.

Baina GECT tresna berria denez gero, oraindik ezin dira aztertu bere abantailak eta muga guztiak. Horretarako, garrantzitsua da beste tokietako esperientziei begiratzea²⁹. Orotara, 46 GECT daude Europan eta 13 sortzen ari. Beren artean, 9k adierazi dute interesatzen zirela lurralde garapenera eta haietarik 15ek aldiz lurraldeko inbertsio integratua nahiago dutela³⁰. Horrela, batzuk GECT erabiltzen dute lankidetzaren estrategikorako, beste batzuk aldiz operatiborako, eta beste batzuk ez dute ardatz zehatzik finkatzen. Edonola ere, anitzetan Europa 2020³¹ estratergiari jarraitzen dute ala “Construire l’Europe au-delà des frontières” inizatibari.

²⁷ Europar Batasuneko Eskualdeen Komiteak Liburu Txuri bat argitaratuko du datorren ekainaren 22-an, balantze bat eginez.

²⁸ David Strazzari, "Harmonizing Trends vs Domestic Regulatory Frameworks: Looking for the European Law on Cross-border Cooperation" *European Journal of Legal Studies* 2011, Vol. 4, Issue 1 (Summer 2011), p.151-203.

²⁹ Ikus : II- B) Euroeskualde ereduak.

³⁰ *Investissement territorial intégré* (ITI).

³¹ Europar Batasunaren estratergia da. 2020ko helburu batzuk finkatzen dira, ardua juridikoki lotesleak ez direnak –politikoak beraz-. Garapen iraunkorra, hazkunde ekonomiko globala, iraunkorra eta adimentsua dira xede nagusiak.

A.2.4- GECTren erreforma berria

Joan den abenduan Europako Parlamentuak bozkatu du GECTri buruzko erreforma eta horrela sortu da 1302/2013 erregelamendu berria, 1082/2006 erregelamendua ordezkatzeko duena. Hain zuzen ere, zuzenketa batzuk egin dizkiote GECTren erabileraren hobetzeko, batez ere Estatuak baimena emateko duten epea gutxituz. Erregelamendu berriarekin batera Europar Batasuneko diru funtsa berriak ere ezarriak izan dira. Azpimarratu behar da lan hori eskualdeen laguntzarekin egina izan dela.

Erreforma horrek ekarpen baikorrak ditu oro har.

Lehenik, kide potentzialen zerrenda zabaltzen da. Horrela, orain parte hartu dezakete nazio mailako agintariek -zuzendaritza ala agentzia nazionalak-, baita enpresa publikoak eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzuek arduratzen diren enpresek³². Gainera, bitarteko Estatuak ere parte hartu dezakete baldintza batzuk betez.

Bestalde, GECTren adhesioa erraztua da eta Estatuaren baimenaren tramiteak koadratu dira. Horrela, oraindik aurrera, ez dute konbentzioari baizik baimena ematerik izanen. Baimenaren emateko epea 6 hilabetekoa da gehienez eta Estatuak isilik egoten bada, baimena balio du -salbu egoitza kokatzen den Estatuarentzat, formalki baimena eman behar baitu-.

Oro har, erregelamendu berriak malgutasun gehiago ekartzen du, bai GECTren ekintzen mailan, baita aplikatzen zaizkion arauen mailan.

Dena den, figura juridiko guztientzat, egoitza Frantzian hautatzen denean, prefetaren baimena lortu behar da.

Bestalde, erreforma honen bidez, Batzordeak bere lehentasunen oroitarazteko parada ukan du: hazkunde ekonomikoa eta enplegua. Baina desafio berriak ere agertzen dira, batez ere hirien egoerari lotutakoak. Europako Batzordeak beste GECT batzuk sortu nahiko lituzke; oroitarazi du GECT tresna ez dela bakarrik eskualdeen politikaren alde baizik eta Europaren alde. Bestalde, Batzordeak nahi ditu inbertsioak bultzatu –ITI delakoak-, inbertidoreak erakarriz.

³² SIEG: *service d'intérêt économique général*. Europar Batasunak horrela deitzen ditu zerbitzu publikoak. Gutxi gora behera Frantzia mailako zerbitzu publikoen ezaugarri eta irizpide berak dituzte.

Adibideak:

1- GECT Lille-Kortrijk-Tournai

Metropoli berri askoren kasuan bezala, honetan ere mugaz haraindiko gobernantza erronka handi bat bihurtzen da lurraldearen antolatzeko eta kudeatzeko.

Erronka honi erantzun behar zela eta, 2001-en sortu zuten Lille-Kortrijk-Tournai metropolion mugaz haraindiko elkarte, zuzenbide frantseseko 1901eko legearen pekoa.

Eurometropoli honetan, maila guztietako agintariak ordezkatuak dira. Horrez gain, eztabaida politikorako esparru berri bat osatzen dute.

Hain zuzen ere, hauek dira egitura honek dituen misioak:

- Elkarrizketa eta eztabaida politikoa garatu agintari publiko, eragile sozio-ekonomiko eta gizarte zibilaren artean, baita horretarako gaitasuna duten erakunde guztiak elkartuz.
- Mugako lurralde osoan koherentzia bat sortu.
- Garapen estrategia bati lotutako proiektuak sortu eta eraman.
- Eurometropoliko biztanleriaren eguneroko bizia erraztu.

Ondorioz, badirudi euro-distritu honek lurralde garapenaren alde lan egiteko baldintzak betetzen dituela. Gehien interesgarria dirudien puntua, hain justu, gizarte zibilari lotutakoa da. Errate baterako, Strasburgo-Ortenau eurodistritoak, bereziki kulturaren arloan, xede berritzaile bat darama: herritarrak gehiago inplikatzeko, elkarrizketa eta parte hartzerako plataforma bat osatuz. Plataforma hori Interneten bidez egiten da, tchat moduko batean. Hautetsi eta herritarren arteko trukaketa lekua da, non herritarrek hainbat galdera eta proposamen egin ditzaketen. Orotara, 3000 erabiltzaile biltzen dira. Hau dela eta, tresna honen helburua herritarraren inplikatzeko da mugaz haraindiko lankidetzaren garapenean. Baina ez da hori bakarrik, tresna honek beste xede bat du: biztanleriaren mugareri atxikimendua indartzea.

Halere, egituraren kideek oraindik konfiantza arazoak dituzte beren artean. Beraz, proiektuak oraindik hobeki landu behar dituzte biztanleriaren arabera, lankidetzaren teorikoa izanez dadin.

2- GECT Flandria-Dunkerque-Côted'Opale

Lehenik, mugaz haraindiko konbentzio bat zeukaten lankidetzan aritzeko. Gero, GECT figura aukeratu zuten 2009an.

Hurrengo xedeei jarraitzen du:

- Elkar ezagutu hobeki
- Egitura horretako eragile guztiak haien artean koordinatu eta haien artean sareak sortu, mugaz haraindiko lankidetzak koherentea eta eraginkorra izan dadin.
- Lurralde ordezkaritza eta elkarrizketa politikoa bermatu.
- Estrategia eta ekintza programa ezberdinak zedarritu, biztanleriaren beharrei erantzuteko gisan.
- Bakoitzaren ekintzak koordinatu, abantailak partekatu, iniziatiba berriak bultzatu eta ikuspegi komun bat lortu, batez ere garapen iraunkorraren bermatzeko lurraldean.
- Egitura bitartekarien aurrean ordezkatu.

GECT honek aukeratu du arlo anitzez arduratzea, hara nola: turismoa, kirola, garapen ekonomikoa, ingurumena, osasuna, garraioak, gazteria eta kultura. Horrela, lurralde garapenaren aldeko eztabaida bermatzen du.

Bestalde, lurralde ordezkaritzan oinarritzen da, GECTaren 13 kideek 540 udal biltzen baitituzte. Alain Lamassoure eurodiputatuak aurten adierazi du, egitura honek oinarri sendoak dituela, preseski eragile anitzak baititu.

Horrez gain, GECT hau 2014-2020 eperako EBko diru laguntzen agintari kudeatzailea izango da.

Ondorioz, dudarik gabe, eurometropoli hau eredu bat izan daiteke Euskal Herriarentzat, ala Baiona-Donostia euskal euro-distrituarentzat behintzat.

3- Cerdanyako Ospitalea

Muga honetan ekipamendu berezi bat ezarri dute: mugaz haraindiko ospitalea. Nazionalitate bikoitza duen ospitalea da, mugako 30 000 biztanleen osasun mailako beharrei erantzuteko sortu dena. Erran behar da horrelako egitura beharrezkoa zela, batez ere mendia zeharkatu behar delako -Euskal-Herriko mugan bezalaxe-. Orain arte, muga horretan ez zuten inoiz maila horretako politika komunik bideratu.

Ospitaleak GECT forma hartzen du. Funtzionamenduari dagokionez, hiru hizkuntza erabiltzen ditu: frantsesa, katalana eta gaztelera.

Halaber, dena ez da hain simple, batez ere oztopo tekniko zein juridikoak daudelako. Hain zuzen, esperientzia eskasagatik, oraindik ez dituzte elementu guztiak menperatzen. Hain zuzen, arazo handienetarik bat tituluen ekibalentziarena da: nola egin ez badira baldintza berdinak galdetzen Frantzian eta Espainian medikuntza mailako ofizio batentzat? Nahiz eta Europar Batasuna jendeen zirkulazio-librean oinarritzen den, Estatuak oraindik saiatzen dira beren

merkatuaren hesten eta ondorioz, horrelako arazo juridikoak mantentzen dira. Dena den, kasu horiei dagokionez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegira (EBJA) jo daiteke.

Jakina, egitura juridikoa hautatuz gero, baitezpadakoa da aztertzea mugaz haraindiko lankidetzaren egitura zein diru iturri ukan ditzakeen.

Finantzazioa: Gorago erran bezala, Europar Batasuna da mugaz haraindiko lankidetzaren gauzatzea ahalbidetzen duena, finantzazioa bermatuz.

A.3 INTERREG

Europar Batasuneko 1083/2006 erregelamenduak du finantziarioa arautzen, 3 diru funtsen bidez:

- Kohesio Funtsa³³.
- Gizarte Funtsa³⁴.

Eskualdeen garapenerako Europako funtsa (FEDER)³⁵: honek ditu preseski INTERREG eta URBACT programak finantzatzen, eta beraz GECT egiturak.

1083/2006 erregelamendua, hain justu, Lisboako Itunaren 158. artikuluan oinarritzen da. Artikulu honen baitan, Europar Batasunaren helburua bere eskualdeen arteko integrazioaren lortzea da, haien arteko desorekak gutxituz. Hortxe dugu INTERREG funtsen xedea.

Diru funtsen funtzionamenduari dagokionez, erregelamenduak azaltzen du haien kudeaketa partekatua dela. Horrek erran nahi du Estatu Espainolak jasotzen duela dirua eta Autonomi Erkidegoei banatzen. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko Estatu kideak dira programa horien kudeaketarako gai. Horretarako, bi agintari aukeratzen dituzte:

Alde batetik agintari kudeatzaile bat izendatzen dute. Agintari honek du erantzukizuna beraz, funtsek finantzaturako ekintzen eraginkortasuna, erregularitasuna eta aplikazioari dagokionez. Zentzu horretan, ekintza ezberdinak

³³ *Fond de cohésion* (FC). Kohesio funtsaren helburua ingurugiroa eta garraioen garatzea da. Maastricht-eko Itunarekin 1992an Europar Batasunean sartzen da. Lisboako Itunaren 174. artikulua kohesio funtsa kontzeptua azaltzen du: lurraldeen artean ezberdintasunak gutxitzea du helburutzat.

³⁴ *Fonds social européen* (FSE).

³⁵ *Fond européen de développement économique européen* (FEDER).

ebaluatzen ditu, baita urtebeteko txosten exekutiboa Europar Batzordeari aurkezten eta barne kontrolak egiten.

Bestalde, finantza agintari bat aukeratzen dute, ziurtatzeko programa horiek aplikatzen dituzten organoen gastuak; hauek Europako Batzordeari bidali behar dira. Finantza agintari horrek Europako kredituak jasotzen ditu eta agintari kudeatzailea ados bada, diru laguntzak banatzen ditu, egin izan den zerbitzua kontrolatu eta.

Frantzia-Espainia-Andorra mugan, Consorcio Comunidad de Trabajo de los Pirineos (CTP) delakoa da programa horien agintari kudeatzailea. Frantziako Akitania, Languedoc-Roussillon eta Midi-Pyrénées eskualdeak biltzen ditu eta Espainiako Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Kataluniako autonomia erkidegoak.

A.4- URBACT

Mugaz haraindiko lankidetzarako programa da, Europar Batasunak eta bere Estatu kideek finantzatua, hiri iraunkorren garapenerako. Informazioaren trukaketa ahalbidetzen du nagusiki.

Hurrengo 2014-2020 epearentzat, URABACT III programak ez du azpiegituretan inbertituko baizik eta aditueta, gizakian. Lortutako informazioaren trukaketa modu transnasionalean izango du helburutzat, hots, informazioa hedatzea Europan zehar.

Programa horrek balio erantsi garrantzitsua gehituko luke GECT tresnari, hiri garapenaren aldetik. Hain zuzen, URBACTen esparruan formulatu daiteke estrategia integratu bat hiriei dagokionez, haien garapen iraunkorren bermatzeko. Zailtasunetarik bat eragile egokien aurkitzea da, anitz eragile txiki baitaude.

A.5- Lurralde inbertsio integratua (ITI)³⁶

Europar Batasunak ezarri tresna da, 2014-2020 eperako strategiaren esparruan. Ikuspegi dimentsioaniztuna bermatzen du. Ideia da lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzea, zatiketa administratibo tradizionalak gaindituz. Tresna hau derrigorrezkoa ez da, proiektuak beste iturri batzuen bidez finantzatu daitezkeelako.

Tresna interesgarria da garapen integratua bermatzen duelako eta finantzazio mailan malgua delako. Hain zuzen ere, Estatu kideek haien programa operatiboak ezartzen dituzte zehar-moldean, beste programa batzuen aurrekontuak batuz. Horrela, ITI horren barruan sartu daitezke beste funtsa batzuk, adibidez FEDER,

³⁶ *Investissement territorial intégré* delakoa. Ikus : <http://www.aramis-fr.eu/Base-de-connaissances/func-startdown/212.html>

FSE ala FC. Batuketa horrek koherentzia bat bermatzen du proiektu ezberdinen artean³⁷.

Laburbilduz, erran daiteke ITI tresna ideala dela tokiko garapenaren indartzeko. Alabaina, ITIren esparruan ez da erabakirik hartzen lankidetzaren mamiari buruz.

Izan ere, garrantzitsua da organo baten ezartzea ITI tresnaren kudeatzeko.

A.5.1 Funtsen kudeaketa

Mugaz haraindiko lankidetzaren erakunde guztiek jaso ditzakete funtsa hauek, izan Europar Batasuneko egiturak ala Europar Kontseilukoak. Nola 2014-2020 eperako programa berria oraindik erabakia ez den, momentuko beti INTERREG IIIA aplikatzen da, baita POCTEFA funtsak Frantzia-Espainia-Andorra mugan. Programa horien helburu nagusienetakik bat enpresen garatzea da, baita beren artean sareak eraikitzea. Haatik, ez dute hainbeste enpresen sortzea ala berreskuratzea laguntzen³⁸.

Nahiz eta funtsa berriak ez diren oraindik ezarriak, begiratzen ahal zaie orain arte egindako proiektuei 2014-2020 eperako, ideia baten ukaiteko³⁹. Hauek litzateke 2014-2020 eperako INTERREG funtsen lehentasunak:

- Ikerkuntza, garapen teknologikoa
- Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna
- Ingurumenaren babesa eta baliabideen eraginkortasuna
- Bestalde, lurralde garapenari lotutako egitasmoak daramatzate:
- Hazkundera eta enplegua sustatzea.

Ikusiz eskualdeen aniztasuna, bakoitzak bere politikak ezarri behar lituzke bere beharrei arabera. Eskualde mailako lankidetzari lehentasuna emanen zaio. Oro har, iduriz gehiago ekialdeko herriak lagunduko dituzte eta Espainiak anitz galduko du.

Nahiz eta Europar Batasunak GECT egitura zabala sortu duen eta proiektuen finantzazioa bermatu, Europar Kontseilua lehena izan da mugaz haraindiko lankidetzari esparru juridiko baten sortzen. Ondorioz, bere tresnak ere aztertu

³⁷ Ez da derrigorrezkoa diru funtsa horien batzea, nahiz eta halere hobe den ITI futsaren esparruan FEDER eta FSE funtsen batzea.

³⁸ *Espagne-France-Andorre: réalité des liens et des échanges économiques transfrontaliers, réalisée par CPC et BPC Europe, membres du réseau Europe&Territoires Conseil, en partenariat avec IDOM Consultoria, Décembre 2012.*

³⁹ INTERREG EUROPE 2014-2020 *Cooperation programme document final draft.*

beharrak dira, Euskal Herriaren garapenaren aldeko tresna egokiak aukeratzeko gisan⁴⁰.

⁴⁰ Azpimarratu behar da EB-ko diru funtsek Europar Kontseiluak sortutako egiturentzat ere balio dutela.

B- Europar Kontseiluak sortutako tresnak

Madrileko Itun markoaren osatzeko, Estatu batzuk itun batzuk izenpetu dituzte beren artean mugaz haraindiko lankidetzaz gauzatzeko. Oro har, itun horiek guztiek figura baten ezartzea ahalbidetzen dute: Mugaz Haraindiko Kooperaziorako Konbentzioa (MHKK). Erran daiteke minimo bat dela mugaz haraindiko lankidetzan aritzeko. Mugaldeko aktore guztiek erabili dezakete, edozein lurraldetan. Tresna malguena da, baina nortasun juridikorik ez du eta ez da epe luzean baizik erabiltzen ahal. Nola ez den tresna loteslea, ezin du borondate politikorik gabe funtzionatu. Europar Kontseiluak Konbentzio eredu batzuk proposatzen ditu.

Espania mailan, 1317/1997 Errege Dekretuak arautzen du Konbentzio horren ezartzea. Arau horrek adierazten du Konbentzioa izenpetu aitzin Estatuaren Administrazio Orokorrari komunikatu behar zaiola eta ondotik, Konbentzioa ofizialki argitaratu egiten dela Estatuaren Buletin Ofizialean⁴¹. Espainol Estatuak kontrola bat egiten du beraz, nahiz eta mugatua izan. Hain zuzen, bakarrik begira dezake ea Konbentzioak Madrileko itunarekin eta Espainiak sinatutako nazioarteko itunekin bat egiten duen; hilabete bat du horren egiaztatzeko.

Frantzia mailan aldiz, Lurralde erakundearen Kodigo orokorrak du arautzen Konbentzioaren ezartzea.

B.1- Madrileko Itun markoa (1980)

1980eko Madrileko Ituna Europar Kontseiluaren esparruan izenpetua izan da; mugaz haraindiko lankidetzaren lehen esparru juridikoa osatzen du.

Haatik, hasieran ez zuen mugaz haraindiko lankidetzaz mugatua baizik ahalbidetzen⁴²: atzerriko erakunde batek parte hartu zezakeen Frantziako erakunde publiko batzuetan. Gaur egun beti hala da. Izan daitezke GIP ala SEML figura duten erakundeak⁴³. Arazoa da alderantzizko hipotesia ezinezkoa zela⁴⁴.

41 BOE núm. 207, de 29 de agosto de 1997; F. J. Iturriaga y Urbistondo, "El ámbito jurídico de la cooperación transfronteriza de las entidades locales españolas" Revista electrónica de estudios internacionales nº12, 2006.

42 Geroztik, protokoloek osatu dute ituna.

43 GIP (*Groupement d'intérêt public*) ala SEML (*société d'économie mixte locale*), 1992-ko otsailaren 2-ko 92-125 legearen arabera.

44 C. Fernandez de Casadevante Romani, "El Tratado de Baiona de 10 de marzo de 1995 sobre cooperación transfronteriza entre entidades territoriales: un marco jurídico competo, R.E.D.I. vol. XLIX (1997), 2.

Gorago erran bezala, itun honek MHKK batzuen sinatzea ahalbidetzen du. Konbentzio horiek oso zabalak eta malguak dira, batez ere kide anitzak bildu ditzaketelako. Malgutasun horren mugatzeko, mugaz haraindiko egiturari aplikatzen zitzaizkion tramiteak ez dira hain zorrotzak. Aldiz, ematen du Europar Batasunaren kasuan alderantziz dela: egitura juridikoak hobeki zedarrituak dira eta beraz kontrola gehiago jasotzen dute. Hau dela eta, interesgarria litzateke gehiago aztertzea Europar Kontseiluak sortutako tresnak, agian malguago litzatekeelako.

Lehenbailehen, ez da ahaztu behar Madrileko Itunak berak hasieratik tresna franko eskaintzen zituela, batez ere mugaz haraindiko lankidetzaren estrategikorako⁴⁵.

B.1.1 Ekintza adostutako taldeak⁴⁶.

Zuzenbide pribatuko mugaz haraindiko elkartea⁴⁷: udal eta tokiko erakundez osatzen da.

Baina nola geroztik Madrileko ituna osatu eta zehaztu den, bere eranskinetan agertzen ziren tresna horiek ahaztu dira. Halere, ez du erran nahi ez dutela baliorik eta komeni litzateke tresna horiek sakonago aztertu beharko lirateke.

Frantzia mailan, 1980eko Madrileko itunaren arauak zirkular batzuetan azalduak dira⁴⁸.

Ondotik, 1980eko Itun orokorra 3 protokoloek osatu dute, mugaz gaindiko lankidetzarako aukerak beti eta gehiago zabalduz:

- Lehena 1995ean: mugaz haraindiko lankidetzaren lehen aitortze juridikoa markatzen du.
- Bigarrena 1998an: mugaz haraindiko lankidetzaren aritzeko aukera ematen du, mugakide ez diren lurraldeen artean ere.

⁴⁵ Nahiz eta ondotik Madrileko Ituna zehaztua izan den, oinarrian eskaintzen zituen tresna horiek bistan ukan behar dira eta komeni litzateke ikerketa sakonago baten egitea tresna horien erabilerari dagokionez.

⁴⁶ *Grupos de acción concertada.*

⁴⁷ *Asociación tranfronteriza de derecho privado.*

⁴⁸ *Circulaires du 1^{er} ministre du 10 mai 1985 et du 12 mai 1987 relatives à l'action extérieure des collectivités locales.* Madrileko Itunak ahalbideratzen du Frantziako lurralde elkargoek konbentzio batzuk hartzea.

- Hirugarrena 2009an: GEC49 figura juridiko berria sortzen du. Erran dezakegu oro har Europar Batasunaren GECT50 figuraren kopia dela, nahiz eta GEC malguagoa den kasu batzuetan, batez ere eskuratu behar diren baimenei dagokionez.

Kontua da, nahiz eta Frantziak hiru protokoloak sinatu dituen, Espainiak aldiz ez duela haietarik bat ere sinatu. Ondorioz, Frantzia eta Espainiaren arteko mugaz haraindiko lankidetzan aritzeko, protokolo horiek ezingo dira erabili. Beharko da Baionako Ituna eta Europar Batasuneko legediari itzuli lege esparru baten aurkitzeko.

Bestalde, aipatzeko moduan denez, interesgarria da begiratzea Europar Kontseiluko legebiltzarrak 2007an hartutako 1811. gomendioa. Testu honen baitan, eskualdea gobernantzaren maila egokiena bezala ikusia da, herritarrei hurbilena eta demokratikoa dela eta –subsidiaritate printzipioari jarraituz–⁵¹.

Pixkanaka-pixkanaka, mugakide diren Estatu batzuk hasi dira haien artean itun batzuen sinatzen 1980eko Madrileko Itunaren osatzeko. Erran behar da Madrileko ituna oso orokorra zela jatorrian, gutxiengo arauak besterik ez zituelako ezartzen. Gainera, Estatu batzuk mugaz haraindiko lankidetzaren beldurra zuten. Espainiaren kasua zen jakina, eta horretarako erabaki zuen itun batzuen izenpetzea bere auzoko herriekin. Horrela, Frantziarekin izenpetu zuen Baionako Ituna eta Portugalekin aldiz Valentziako Ituna. Beste alde biko itun batzuk ere izenpetu ziren, batez ere Isselburg Anholt-eko ituna, Beneluxeko ituna⁵², eta Karlsruhe-ko Ituna⁵³. Artetik errateko, azpimarratu behar da itun horiek ez direla nazioarte mailakoak baizik eta Estatu mailakoak. Horrela, alde biko itunaren bidez, Estatuak mugaz haraindiko lankidetzaz zaindu eta mugatu dezakete.

49 GEC : *Groupement eurorégional de coopération.*

50 GECT: *Groupement européen de coopération territoriale.*

51 Giza eskubideen defentsa ere aldarrikatzen du eta bereziki gutxiengoaren defentsa. Nabaritzen du Estatu batzuk oraindik ukatzen dituztela balore horiek eta ondorioz, gatazka sortzen da gutxiengoa eta Estatuaren artean. Dena den, azpimarratzen du gatazka horiek modu baketsu eta demokratikoan konpondu behar direla, batez ere hauteskunde eta erreferendumen bidez. Kontua da gomendio hori ez dela berretsia momentuko. Gainera, protokolo bat behar litzateke gomendioaren osatzeko.

52 1986ko martxoaren 30eko Benelux-ekoltuna, Belgika, Holanda eta Luxenburgoren artean.

53 1996ko urtarrialaren 6ko Karlsruhe-ko Ituna, Frantzia eta Alemaniaren artean.

B.1.2- Baionako Ituna (1995)

1995eko martxoaren 10ean izenpetu zen Baionako ituna⁵⁴. Aldebiko ituna da, Frantzia eta Espainiaren artekoa, 1980ko Madrileko ituna osatzen duena.

Bi Estaturen mugaz haraindiko lurralde erakundeen arteko lankidetzakudeatzen du. Ituna eremu mugatu batean aplikatzen da, Frantziaren hegoaldean eta Espainiaren iparraldean alegia⁵⁵. Itun hori izenpetuz gero, Frantziako lurralde erakundeek ere parte hartu dezakete Espainiako erakunde publiko batzuetan, baita partaide izan daitezke- dirua sartu dezakete-. Mugaz haraindiko lankidetzakerakundeak (MHLE) nortasun juridikoa ukan dezake ala ez.

Itun honek mugaz haraindiko kontratazio publikoa ahalbidetzen du nagusiki. Ez du aginte, polizia eta arautze botereen erabilera ahalbidetzen adibidez –beraz EAE eta NFEk ezingo lituzkete botere horiek mugaz haraindian erabili-.

Espanian, Errege Dekretu batek Baionako Itunaren aplikazioa ahalbidetzen du. Azaltzen duenez, mugaz haraindiko lankidetzak proiektua aldezturirik komunikatu behar zaio espaniol Estatuari eta ondotik, proiektua ofizialki argitaratu egiten da.

Horrez gain, azpimarratu behar da itun honen esparruan sortutako erakundeek iraupen mugatua dute, ezin baitute 10 urte baino gehiago iraun. Ondorioz, ezin dira epe luzerako proiektuak bideratu itun honen esparruan –batez ere euroeskualde bat-.

Mugaz haraindiko lankidetzakerakundearen egoitza Espainian aukeratzen denean, orduan Consorcio egitura du, derrigorrez -partzuergoa-⁵⁶. Egitura hau gehienik prestazio ekintzez arduratzen da, erran nahi baita obra publikoetaz ala tresna eta zerbitzu publikoen kudeaketaz. Bi Consorcio eredu dira Espainian: helburu orokorra dutenak -arlotan zabaldu aritzen direnak- eta helburu zehatza dutenak -adibidez kulturaren arloan-.

Aldiz, egoitza Frantzian aukeratzen bada, mugaz haraindiko lankidetzak bi egitura ezberdinen bidez egin daitezke Baionako Itunaren arabera: GIP edo SEML.

⁵⁴ 1997ko otsailaren 27an indarrean jarri zen.

⁵⁵ Baionako itunaren sartzen diren eskualdeak :

- Frantzia aldean: Akitania, Gironda, Languedoc-Roussillon
- Espainia aldean: Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Errioxa, Katalunia

⁵⁶ Espainiak ez du beste aukerarik utzi Baionako itunean.

B.1.2.1- GIP (Groupement d'intérêt public)

Gorago erran bezala, GIP figura aukera daiteke bakarrik mugaz haraindiko lankidetzaren erakundearen egoitza Frantzian kokatzen denean.

Frantzia mailan sortu egitura da, 1982ko uztailaren 15eko 82/600 legearen bidez. Egitura publikoa da eta interes publikoei jarraitzen du nagusiki. Arlo anitzetan erabili daiteke, besteak beste osasun publikoan, tarteratze profesionalean, turismoan, ingurumenean ala tokiko kudeaketan. Oro har, hiri garapen sozialaren aldeko politika adostuak lantzea eta ezartzea, baita INTERREG diru funtsen kudeatzea ditu helburu nagusiak.

Gainera, nahiz eta zuzenbide publikoaren menpe izan, bere kideak izan daitezke pertsona publikoak zein pribatuak, izan Estatukoak ala atzerrikoak. Bestalde, eskala ezberdinetan erabili daiteke GIP: Estatu mailan, Eskualde mailan ala tokiko mailan.

Figura interesgarria da, batez ere lurralde antolaketa eta garapen ekonomikoaren alde aritzeko aukera ematen duelako. Ikerketa eta formazio mailan ere lan egiteko egokia da. Oro har, irabazi-asmorik gabeko interes orokorra duten ekintzen bideratzeko erabiltzen da. Egia erran, ekimen asko egin daitezke tresna horren bidez arlo anitzetan eta egitura oso malgua da, eragile bakoitzaren borondatean oinarritzen dena. Muga nagusia Estatuaren tutoretza da⁵⁷. Hain zuzen, GIP konbentzio baten bidez sortzen da eta Estatuak baimena eman behar dio. Gainera, Frantziak hurbiletik zaintzen du GIP egituren erabilera.

Azkenik, ohartarazi behar da GECT figura sortu denetik eztabaida izan dela GIP figuraren kentzeko. Oraindik indarrean da momentuko, baina egia da indarra eta zentzua galdu dituela, GECTk aukera zabalagoak eskaintzen dituelako.

Adibidea

GIP INTERREG Saarland-Mosela-Lorraina-Westfalia (2004). INTERREG III funtsen agintari kudeatzaile izateko sortua izan da, baita ere INTERREG IV (A) Grande Région programako eskualde antena izateko xedearekin. Frantzia eta Alemaniako lurralde erakundeak dira bere kideak: Frantziatik Estatuak, Eskualdea eta Kontseilu orokorra, Alemaniatik aldiz bi Land.

57 Ikus GIP Transalpes.

B.1.2.2- SEML(Société d'économie mixte locale)⁵⁸

SEML egiturak zuzenbide pribatukoak dira baina haien kapitalaren %50-a eta 85aren artekoa akziodun publiko batena da. Hala eta guztiz ere, SEML bat sortzen baldin bada mugaz haraindiko lankidetzarako, Frantziako kideek akziodun nagusi geratu beharko dute.

Nahiz eta zuzenbide pribatuko egitura den, bere estatutua publikoa eta pribatuaren artean da.

Helburuak

SEML egiturak zerbitzu publikoen kudeaketa du xede nagusizat, baita kontratazio publikoa. Kudeaketa hori hedatu daiteke industria eta merkataritza zerbitzu publikoetara⁵⁹. Horrez gain, Frantziako deszentralizazio prozesua burutzen ari dela eta, beste gaitasun batzuk ere ukan ditzake, hara nola, ospitaleetan inbertitzea, portu eta aerodromo zibilen kudeaketa baita telekomunikazioen garatzea. Bestalde, SEML egiturak erabili daitezke lurralde antolaketa eta eraikuntzarako –eta preempzio eskubidea lortu dezakete antolakuntza kontzesio baten esparruan⁶⁰.

Oro har, hauek dira SEML egituran eraman ditzakeen ekintzak: antolaketa, eraikuntza, zerbitzu publikoen ustiaketa, ala interes orokorreko beste ekintza batzuk. Azpiarratu behar da azken kontzeptu honetan gauza asko sartu daitezkeela, gauza anitz interes orokorrekoak izan daitezkeelako, hara nola hezkuntza, osasuna, ingurumena, etxe bizitza, etab. Beraz, nahiz eta printzipioz tresna hori proiektuen kudeaketarako sortua izan den, badirudi haratago joan daitekeela.

Laburbiltzeko, erran dezakegu SEML egitura interes publiko bati lotutako ekintzetan erabili daitekeela. Lurralde erakundeen parte-hartzea ahalbidetzen du eta Europar Batasunean ongi integratzen da. Haatik, azpimarratu behar da tresna horren bidez egin daitezkeen ekimenak mugatuak direla eta diru anitz eskatzen dutela.

⁵⁸ Erdaraz « *partenariat public-privé institutionnalisé* » deitzen zaio egitura mota honi, eragile publiko eta pribatuak nahasten direlako. Frantziako 1983-ko uztailaren 7-ko legeak du arautzen.

⁵⁹ *Service Public Industriel et Commercial* (SPIC).

⁶⁰ *Concession d'aménagement*.

Osaera

SEMLren kideak zuzenbide publikokoak ere izan daitezke, hautetsiak barne -artetik errateko, beren erantzukizun pertsonala jokoan ezartzen dute-. Hau dela eta, SEML bere finantzatzaileen peko da eta beren aginteei jarraitzen du.

Egituraketari dagokionez, bi aukera dira:

- Administrazio kontseilua, lehendakari batekin
- *Directoire eta Conseil de surveillance* organoak

Gainera, Biltzar Orokor bat dauka egituraren kudeaketarako, baita zuzenbide pribatuko langileak.

Tramiteak eta kontrolak

Lehenik, SEML egiturak enpresa bat osatzen duenez, matrikulatu behar da.

Nola egitura mistoa den, SEMLk hartzen dituzten kontrolak izan daitezke pribatuak zein administratiboak:

- Kontrol publikoa: lurralde elkargo akziodunek egiten dute, baita prefetak; honek SEML sortzen dituen dokumentuak jasotzen ditu, baita SEMLk hartzen dituen erabakiei buruzko dokumentuak. Horrez gain, Kontuen eskualdeko ganbarak⁶¹ kontrola administratibo eta juridiszionala egiten du.
- Kontrol pribatua: akziodun eta kontuen arduradunak⁶² egiten dute, baita zuzenbide pribatuko epaileak gatazka denean.

Gorago erran bezala, egoitza Espainian aukeratzen denean, ez da partzuergoa baizik posible.

B.1.2.3- Kontsortzioa

Espainiako autonomia erkidegoekin lan egiteko, Baionako itunean oinarritzen den zuzenbide publikoko egitura da. Ekipamendu eta zerbitzu publikoak sortu eta kudeatzeko gaitasuna du nagusiki.

⁶¹ *Chambre régionale des comptes.*

⁶² *Commissaire aux comptes.*

Baionako itunaren 2. artikuluan izendatutako lurralde erakunde eta tokiko agintariek partzuergo batean parte hartu dezakete, erran nahi baita udal mailakoek, eskualde mailakoek ala horiek bien artekoek.

Baionako itunak dio kudeaketarako dela baina praktikan badirudi haratago doala, batez ere garapenaren aldeko planak diseinatzeko -ikerketak, inkestak., etab-.63.

Lege aplikagarriari dagokionez, Espainiak ez dauka lege orokorrik kontsorzio figurari dagokionez, aplikatzen zaizkion arauak lege anitzetan aurkitu daitezke⁶⁴. Erran behar da oso figura malgua dela, beraz, ez da partzuergo eredu bakar bat, baizik eta mota anitz.

Gorago erran bezala, partzuergoren egoitza Espainian kokatu behar da, derrigorrez. Ondorioz, ez da partzuergoaren estatutu eredu bakarrik, Autonomia Erkideko bakoitzak arautzen dituelako.

Azken finean, nahiz eta Baionako itunaren baitan partzuergoa kudeaketarako baizik ez den, badirudi praktikan harago doala, adibidez, kasu batzuetan garapenaren aldeko planak diseinatzea ahalbidetzen baitu -ikerketak, inkestak...-. Hain zuzen ere, Bidasoa-Txingudi partzuergoak oso zabala ematen du, arlo anitzen inguruko lankidetzak bermatzen baitu.

B.1.2.4- GECT edo kontsortzioa?

Aurreko guztia laburbiltzeko, agertzen da GECT figura berria sortu denetik, anitzek beste figurak uzten dituztela egitura berri honen hautatzeko -jakinez anitzek beste figurak hautatu zituztela besterik ez zegoelako-. Erran behar da GECT dela orain arte existitzen den figura zabalenerarik bat, Estatu bakoitzak eman behar baitio bere egitura ezberdinei eskaintzen dien gaitasun maila gorena.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herriaren kasuan, kontuan hartu beharko da Espainol Estatuak ez duela partzuergoa baizik onartzen egoitza bere lurraldean kokatzen denean. Ondorioz, interesgarria litzateke partzuergoa eta GECT egituren erkatzea, agerian emateko zeintzuk diren bakoitzaren abantailak eta mugak, egokienaren aukeratzeko gisan. Egia erran, GECT eta partzuergoak antzekotasun anitz dituzte⁶⁵. Bi egiturak erabili daitezke mugaz haraindiko egoitza Espainian aukeratzen denean, helburu eta xedeen arabera.

63 Ikus Bidasoa-Txingudi partzuergoa.

64 Adb: *Consortios locales para la cooperación transfronteriza*, art. 87 de la LBRL; ley 30/1992.

65 I. SANZ, "La Agrupación Europea de Cooperación Territorial (AECT): ¿Una nueva Administración Pública de Derecho Comunitario? Algunos problemas", *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, Año nº 12, Nº 31, 2008, págs. 673-710.

Osaerari dagokionez, izan Partzuergoa ala GECTren kasuan, zuzenbide pribatuko pertsonen parte hartzea mugatua da: bakarrik parte hartu dezakete Administrazioaren menpe diren pertsona pribatuek.

Lege aplikagarria

Haien arteko ezberdintasunetarik bat lege aplikagarria da: GECTri Europako legea aplikatzen zaio oinarrian eta partzuergoari aldiz Estatuaren legea –jakinez erregelamendua partzuergoaren legeria baino aberatsagoa dela-. Halere, jakin behar da GECTri aplikatzen zaion Espainiako lege osagaia partzuergoarena dela; horrek erran nahi du erregelamenduak puntu bat argitzenez badu, partzuergoaren legeriari begiratu beharko zaiola.

Helburua

Bestalde, GECT eta partzuergoak helburu ezberdinei jarraitzen dute printzipioz.

Partzuergoa bereziki egokia da zerbitzu publikoen kudeaketarako –nahiz eta iduriz praktikan harago joan daiteken-.

GECT aldiz anitzez zabalagoa izan daiteke. Gainera, kudeatzen ditu bai mugaz haraindiko lankidetzak, baita lankidetzak transnazionala eta eskualdeen arteko lankidetzak⁶⁶.

Osaera

Horrez gain, GECT eta partzuergoa ezberdintzen dira haien osaerari dagokionez: Estatu kideek ezin dute parte hartu partzuergoan, GECTn aldiz bai.

66

- Mugaz haraindiko lankidetzak (cooperación *tranfronteriza*): auzo diren bi lurraldeen arteko lankidetzak.

- Eskualdeen arteko lankidetzak (cooperación *interregional*): auzo ez diren bi lurraldeen arteko lankidetzak.

- Lankidetzak transnazionalak (cooperación *transnacional*): auzo ez diren bi lurraldeen arteko lankidetzak, Estatuaren parte hartzearekin.

Tramite eta kontrolak

Azkenik, tramiteei dagokionez, Espainol Estatuak berak du baimena eman behar partzuergoaren sortzeko, ez eta autonomia erkidegoek. Hala eta guztiz ere, naiz eta juridikoki ukatu dezakeen, ezin du batari bai erran eta besteari ez baldintza berak errespetatzen dituztenean -diskriminazioa litzateke-.

Edonola ere, badirudi oro har partzuergoari aplikatzen zitzaizkion tramiteak GECTari aplikatzen direnak baino malguagoak direla, baita kontrolak.

Oro har, GECTreriko ezberdintasunetarik nagusiena epailearena da: GECTren kasuan, bada EBJAra jotzeko aukera gatazka baldin bada, partzuergoaren kasuan aldiz ez. Alabaina, edozein gisaz ezberdintasun horrek ez du inportantzia handirik, partzuergoaren barruan arbitro sistema bat ezarri daitekeelako gatazken kudeatzeko.

Adibideak

Bidasoa-Txingudi Kontsortzioa

Euskal Herriak badu figura honen esperientzia, Bidasoa-Txingudi partzuergoaren bidez. Egitura horrek lurralde garapenerako tresna batzuk sortzen ditu, batez ere:

- Lurralde antolaketa, politiken koordinazioa baita hirien plangintza
- Garapen ekonomikorako estrategiak
- Zerbitzu komunak (hezkuntza, zerbitzu sozialak, kultura eta trebakuntza profesionala).
- Erakunde publiko eta pribatuen arteko loturak
- Informazio trukaketa zabala
- Turismo politiken lantzea

Egoitza: Egoitza Hegoaldean du, Baionako itunak inposatzen duen bezala. Horrek erran nahi du Bidasoa-Txingudi Espainiako legearen menpeko dela.

Organoak: Batzorde permanente bat da 9 kidez osatua, baita auzapezak – Irun, Hendaia eta Hondarribikoak- eta bi zinegotzi mugaldeko lurralde bakoitzetik. Horrez gain, partzuergoak zuzendaria eta zuzendari-ordeak dauzka, mugaldeko lurralde bakoitzekoak.

Oroitarazi behar da Frantziak lankidetzeta hori zaindu duela, batez ere Hendaia bere subiranotasuna atxiki zezan eta erabaki pisuegirik har ez zezan. Hain zuzen, Frantziaren beldurra zen Hendaia mugaldeko beste lurraldearen peko geratzea.

Bestalde, Espainiak partzuergo honen eraikuntza baldintzatu zuen, galdetuz gobernu frantsesa egituran ordezkaturia izan zedin. Hau dela eta, gaur egun Frantziako Kontseilu Orokorra Bidasoa-Txingudi partzuergoaren kide da.

Izan ere, azpimarratu behar da egituraketa honen bidez Bidasoa-Txingudi partzuergoak eremu integratu baten sortzea lortu duela, tokiko biztanleriaren alde eta tokiko garapen ekonomikoaren sustatzeko gisan. Erran behar da egitura publiko bakarria zela eremu hartan, GECT figura sortu izan aitzin.

Gaitasunak: Ondarea kudeatzeko, erosi ala saltzeko gaitasuna du, kontratazio publikoan aritzeko, baita zerbitzu publikoen kudeatzeko –zuzenbide Espainolaren pean-.

Bestalde, diru laguntzak eskatu ditzake baita maileguak egin. Hain zuzen, Europar Batzordearen INTERREG funtsak jasotzen ditu, egitura integratuen funtsak alegia.

Erabaki garrantzitsuen hartzeko⁶⁷, udal bakoitzeko ordezkarien 2/3aren baimena lortu behar da.

Bourg-Madame/ Puigcerdá kontsortzioa

2005ean sortutako partzuergoa da, Kataluniako bi udalen artean: Bourg-Madame -Ekialdeko Pirinioak departamendu frantsesekoa- eta Puigcerdá -Kataluniako Autonomia Erkidegokoa-. Turismoa, kultura, osasuna, ingurumena eta garapen ekonomikoaren aldeko ekintzak sustatzea eta bultzatzea du helburutzat.

Hau dela eta, argi da praktikan partzuergoaren egitura zerbitzu publikoen kudeaketa hutsa baino haratago doala, zinezko estrategia komun bat bermatuz.

B.1.2.5- Baionako itunaren balantzea

Ohartu daitekeenez, Euskal Herriko mugaz haraindiko lankidetzak kudeatzen duen itun hau nahiko mugatua da, bai misioei dagokionez, baita sortutako egituren iraupenari dagokionez.

Urrunago joan nahian –lurralde garapenaren alde lan egiteko-, Baionako ituna aldatu daiteke, bere 14.artikuluak salatzeko baimena ematen duelako. Horrez gain, Baionako itunak aldebiko batzorde baten ezartzea ahalbidetzen du; sei ordezkari ditu Estatu bakoitzarentzat. Batzorde horrek proposamenak egin ditzake Baionako Itunaren hobetzeko.

⁶⁷ Estatutuen formulazioa, partzuergoaren gelditzea, kide baten gehitzea ala kanporatzea/joatea, mailegu luze baten egitea, etab.

Alabaina, kontuan hartu behar da Baionako ituna Pirinio guztietan aplikatzen dela. Bestela erranda, ez da bakarrik Euskal Herriarentzat egina eta arazo bat denean ala aldatu nahian, Pirineo osoko kideekin negoziatu behar da. Ondorioz, egokiago litzateke Euskal Herriaren mailako itun propioaren sortzea, mugaz haraindiko harremanak errazago kudeatzeko -eta ez legoke baitezpada proiektuen kudeaketan mugatua-. Horretarako, zuzenbideak baino politikak dauka papera. Hain zuzen, behar litzateke hasi Europar Kontseiluari eskaera eginez, Euskadiko bertako ordezkariaren bidez⁶⁸.

Bestalde, ez da ahaztu behar Baionako itunaz aparte badirela beste hitzarmen batzuk Euskal Herriko udalen artean. Hain zuzen, XIX. mendean Frantzia eta Espainiak hartu zituzten muga-itunak, bakoitzaren lurraldearen mugen finkatzeko⁶⁹. Horrelako hitzarmenek oraindik balio dute eta komeni litzateke ikertzea ea garatu daitezkeen, Euskal Herriaren mailako mugaz haraindiko lankidetzarako itun orokorraren sortzeko gisan - Baionako itunaren antzekoa-.

Aurreko guztia ikusi eta, erran daiteke badela Baionako itunaren esparrua baino haratago joaterik.

B.1.3- Valentziako ituna, 2004

2004ko Valentziako itunak Espainia eta Portugalen arteko mugaldeko proiektuak kudeatzen ditu. Itun hori izenpetu arte, ez ziren GEIE egiturak eta legez kanpoko akordioak baizik erabiltzen ahal muga horretan.

Valentziako ituna aplikatzen den lurraldean, tokiko erakundeak mugaz haraindiko lankidetzan aritu daitezke konbentzio bat izenpetu eta -hitzarmenik gabe ezin dute-, haien gaitasunen arabera. Horrela, betebeharrak juridikoak zedarritu ditzakete, baita mugaldeko egitura batzuk sortu.

Alde batetik, nortasun juridikorik gabeko erakundeak sortu ditzakete⁷⁰, bereziki ikerketa, plangintza eta animazio arloetan –beste gaitasunik eskatzen ez duten arloetan alegia-. Erakunde mota horiek dira gehienik hurbiltzen lurralde horrek ezagutu duen esperientziari mugaz haraindiko lankidetzan mailan.

⁶⁸ Hasieran, Europar Kontseiluko Euskadiko ordezkariak egin zuten horrelako eskaera baina erantzun zioten ezin zela, ez zelako Euskal Herriaren mailako legebiltzarrik. Baina politikoki, gatazkak ez zuen laguntzen. Orain bake prozesua dela eta, agian momentu egokiagoa litzateke horrelako eskaera berbideratzeko.

⁶⁹ *Tratado de límites de 6 de diciembre de 1856*; Irun eta Hendaiaren arteko uraren kudeaketarako kontratua, 1981eko azaroaren 6koa.

⁷⁰ *Grupos de trabajo* udalentsat, edo *Comunidades de trabajo* eskualdeentsat.

Bestalde, nortasun juridikoa duten erakundeak ere sortu ditzakete, bereziki obra publikoen egiteko edo kudeatzeko, baita Interreg II programen jasotzeko. Erakunde horien parte hartzerako, aukeratu dezakete Espainiako legea aplikatzea ala Portugalgoa.

Horrela, alde batetik Valentziako itunak erakunde berri batzuen sortzea ahalbidetzen du eta bestalde, erakunde zaharren egokitzea eskatzen du.

Valentziako Itunaren betetzea bermatzeko eta behar delarik Espainia eta Portugalen arteko lankidetzaz garatzeko, alde biko batzorde bat ezarri dute: mugaz haraindiko erakundearen aginte organoa. Batzorde horretan parte hartzen dute mugaldeko egituretako eragileek, baita bi Estatuetakako ordezkariak. Valentziako Itunaren aplikazioari buruz arazo bat denean biltzen dira –bereziki mugaldeko egituraren falta delarik- ala Itunaren aldatzeko. Bestalde, batzorde horren peko diren batzorde berezitu batzuk ere bildu daitezke galdera berezi batzuk jokoan direnean.

Laburbiltzeko, Baiona eta Valentziako itunen helburua mugakideen artean gai amankomunen ikertzea da, elkarlanerako proposamenak egitea baita aktore publiko zein pribatuen artean harremanak sortzea.

Izan ere, Baionako eta Valentziako itunek ez dute zerbitzu publikoen kudeaketaz haratago joateko parada handirik eskaintzen –Valentziakoak halere plangintza batzuen ezartzeko aukera ematen du-. Bestela erranda, mugaz haraindiko lankidetzaz operatiboa dute ahalbidetzen nagusiki, eman dezagun, muga-gaindiko ekipamendu komunak sortzea eta elkarrekin kudeatzea, ospital baten eraikitzea ala eskola baten finantzatzea. Ondorioz, badirudi itun honek ez duela lurraldearen behar orokorragoei erantzuteko tresnarik eskaintzean. Egia erran, zerbitzu publikoen kudeaketa hutsa ez da nahikoa lurraldearen garapenaren bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, beste alde biko itun batzuk urrutiago doaz, lurraldea garatzeko politika sakonagoen egiteko parada eskainiz, bereziki Karlsruhe-ko ituna eta Isselburg-Anholt-ekoa. Itun horiek aztertu beharko lirateke, Baionako itunari alternatiba baten eskaintzeko gisan.

B.1.4- Karlsruhe-ko Ituna, 1996

1980eko Madrilgo Ituna osatzen duen Ituna da, Frantzia, Alemania, Luxenburgo eta Suitzaren artekoa. Zuzenbide publikoko egitura da, mugaz haraindiko lurralde erakunde eta tokiko erakunde publikoen arteko lankidetzaz kudeatzen duena. Estatuaren legea eta nazioarteko zuzenbidea errespetatzen ditu, jakina.

Bestalde, itunaren 2. artikuluan azaltzen den bezala, Estatu izenpetzaile bakoitzak lankidetzaren inizatibak aztertu ditzakete honen errazteko gisan, bereziki zuzenbide nazionalen arteko ezberdintasunek mugaz haraindiko lankidetzaz tratatzen dutenean. Horrela, Estatuak aktiboki parte hartu dezakete

mugaz haraindiko lankidetzan. Alabaina, nahiz eta Estatuak paper bat jokatzen duten, ezin dute mugaz haraindiko lankidetzan parte hartu itun honen esparruan.

Itun honek lurralde erakunde ala tokiko erakunde publikoei ematen die aukera haien artean konbentzio baten sinatzeko –beste alde biko itunek bezala alegia-. Lankidetzaren konbentzio honen arabera, lurralde erakunde ala tokiko erakunde publiko batek mugalderako beste lurralde erakunde ala tokiko erakunde publiko bati dagozkion eginkizunak bete ditzake, baita ere bere aginteak, bere Estatuaren legea errespetatuz. Kontua da konbentzioak ez direla lotesleak bere sinatzaileentzat.

Konbentzioaren bidez erabaki daiteke erakunde batean parte hartzea ala berri baten sortzea, nortasun juridikoa duena ala ez. Halaber, lurralde erakunde ala tokiko erakunde publiko batek horrelako erabakia hartzen badu, aurretik baimena eskuratu behar du, bere Estatuaren legearen baldintzak betez.

Itun honek, mugaz haraindiko lankidetzaren sakona ahalbidetzen du. Lehen bai lehen, zerbitzu publikoen kudeaketa eta kontratazio publikoa ahalbidetzen ditu, Estatu bakoitzaren legea errespetatuz. Alde horretatik, ez da aldaketarik Baionako itunarekin konparatzen badugu.

Baina bestalde, itun honek beste aukera batzuk eskaintzen ditu, lurralde garapeneren alde aritzeko. Hain zuzen ere, itunaren 9. artikuluan baitan, mugalderako kideek nortasun juridikorik gabeko erakundeak sortu ditzakete, batez ere lan taldeak, azterketa eta gogoetarako taldeak, koordinaketarako batzordeak - interes komuneko gaiei buruz-. Erakunde horiek informazioaren partekatzea bermatzen dute eta helburu zehatzak bultzatu ditzakete. Ohartu daitekeenez, artikulua hau erabat zabala da, proiektu anitz sartu daitezkeelako. Irizpide bakarrak dira kideen interesari jarraitzea eta sortutako egiturak “helburu zehatz” bati jarraitzea.

Beraz, agertzen da itun honek lankidetzaren estrategiko baten gauzatzeko parada sortzen duela, ala behintzat, lurralde garapenera lotutako gogoetaren esparrua. Gainera, iduriz egitasmo horiek ez dute diru inbertsio handirik eskatzen.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da erakunde horiek nortasun juridikorik ez dutenez gero, haien erabakiak ez direla lotesleak; borondate politikoan oinarritzen dira alegia.

Bestalde, nortasun juridikoa duten erakundeetan ere parte hartu dezakete, ala berri batzuk sortu, -egoitzaren Estatuaren baimena lortu eta-. Horretarako, Karlsruheheko itunak figura juridiko interesgarria sortu du: mugaz haraindiko lankidetzarako tokiko elkarteak (GLCT).

B.1.4.1- GLCT (Groupement local de coopération transfrontalière)

1996ko Karlsruhe-ko itunak sortutako zuzenbide publikoko egitura da, 2004-etik aurrera⁷¹ Frantzia, Belgika, Luxenburgo, eta Suitzaren arteko mugetan erabili daitekeena. Geroztik, District Européen deitzen zaie Frantzian kokatzen diren GLCT egiturei. Hain zuzen, izan daiteke zuzenbide Frantsesekoa edo ez. Bere iraupena ez da mugatua.

Osaera

Lurralde erakunde⁷² eta tokiko erakunde publikoak sartu daitezke GLCT egituran. Gero, beste kide batzuk gehitzeko aukera idatzi daiteke estatutuetan, Estatu bakoitzaren legea betetzen den arren.

GLCTk egitura zehatza du. Lehenik, Asanblada bat du, non lurralde erakunde ala tokiko erakunde publiko bakoitza ordezkaturik den. Ondotik, lehendakari bat du, erabakien betetzea zaintzen duena, baita lehendakari ordeak. Asanbladak urteko aurrekontua aurretik finkatzen du; gero, balantze bat egiten dute.

Gaitasunak

Zuzenbide publikoko egitura sendoa eta autonomoa da, nortasun juridikoa duena. Horrek erran nahi du langileak kontratatu ditzaketela, baita lizitazioak egin eta kontratuak sinatu. Finantza mailan autonomoa da, kideen partaidetzan oinarritzen delako; gero, GLCTk egindako prestazioei esker ere finantzatzen da. Horrez gain, Europako lurralde kooperaziorako programak kudeatu ditzake 2014-2020 eperako.

Oro har, figura malgua da erabilerari dagokionez.

Helburuak

GLCT egiturak zerbitzu publiko eta ekipamenduen sortzea eta kudeatzea ahalbidetzen du. Ekipamendu ala azpiegitura publiko batetaz arduratzen bada, GLCT egitura proiektuaren jabe eta kudeatzaile bihurtzen da, bere kideen kontura. Proiektuen kudeaketarako egokia da beraz.

Izan ere, GLCT egituraren misioak soilik mugaz haraindikoak dira, kide bakoitzarentzat interes bat sortu behar dutenak, haien gaitasunak errespetatuz.

⁷¹ *Loi du 13 août 2004 relative aux libertés et responsabilités locales.*

⁷² Izan daitezke tokikoak zein eskualde mailakoak.

Lege aplikagarria

Bere sortzea, Estatuaren eskualdeko ordezkariak baimendu behar du – Frantziaren kasuan prefetak-.

Lege aplikagarriari dagokionez, alde batetik GLCTaren kideek idatzitako konbentzioak ditu funtzionamendua eta estatutuak finkatzen. Bestetik, syndicat mixte ouvert⁷³ figura juridiko frantsesari aplikatzen zaizkion arauak GLCTaren zatere balio dute zuzenbide frantsesean oinarritzen bada. Berdin, egoitza beste Estatu batean baldin bada, arau baliokidea aplikatzen zaio, herri elkargoari aplikatzen zaien araua alegia.

Nahiz eta GLCT den itun honek sortzen duen figura nagusia, oro har, Estatuaren zuzenbide publikoaren esparruko figura guztiak onartzen ditu:

- Alde batetik, Frantzia mailan GIP figura, bakarrik zuzenbide frantsesean agertzen dena.
- Bestalde, zuzenbide pribatu tresnak: elkarteak, GEIE eta SEML⁷⁴.

Adibideak

Estrasburgo-Ortenau eurodistritua

2005ean sortu zen euro-distritu hau, Estrasburgo eta Ortenau hiri elkargoen artean –Frantzia eta Alemaniaren arteko mugan-. Khel hiri alemanean du egoitza. 2010ean GECT egitura juridikoa aukeratu zuten.

Erran behar da ez dutela lurralde oreka berdina, Estrasburgoren dentsitatea askoz goragoa delako. Biztanleriaren kopurua aldiz berdintsua da bi aldeetan; nahita horrela zedarritu zuten egitura, biztanleriaren kopuru berdina hartuz mugako bi aldeetan alegia.

Eurodistrituak Kontseilu bat dauka, non bere kideek lurralde erakunde ezberdinak ordezkatzeko dituzten -jakinez 900 000 biztanle direla orotara-. Tokiko arazoak aipatzeko urtean bi aldiz biltzen dira.

Horrez gain, euro-distritu honek INTERREG Ipar-Renaniaren esparruan dirua kudeatu dezake hainbat proiektuen eramateko.

Hauek dira Estrasburgo-Ortenauren arlo nagusiak: mugaz harandikoko ikaskuntza, kartografia, mugikortasuna, enpresa mintegiak, enplegua, hezkuntza, etab.

⁷³ Art. L. 5721-1 à L. 5722-8 d uCode général des collectivités territoriales.

⁷⁴ Ibidem.

GLCT Regio Pamina eurodistriria

Egitura honek aldiz GLCT figura aukeratu du. Egoitza Frantzia du, beraz Frantziako administrazioari dagozkio kontrolak. Frantziako Lurralde Erakundearen Kodigoaren L.5721-1 artikulua baita, *Syndicat mixte ouvert* figura juridikoa du. Aldiz, Alemaniari dagokio lehendakaritza.

GLCT honen kideak lurralde erakundeak dira, batez ere udalak. Batzorde bakoitzean 6 ordezkari daude eta haietarik 2 mugaldeko lurralde bakoitzetik.

Ohartu daitekeenez, bere misioak oso zabalak dira. Hiru batzordeetan banatuak dira:

- Finantza, Ekonomia eta Gai sozialak
- Lurralde antolaketa eta Garraioak
- Inguruma, Turismoa, Kirola eta Kultura

Ikusi daitekeenez, egitura honek hainbat proiektu bideratzen ditu, batez ere garapen ekonomikoa, enplegua, formazioa eta energiaren arloetan; horrela, lurraldearen garapenaren alde arizaita bermatzen du. INTERREG IVA Rhin Supérieur diru laguntzak jasotzen ditu mikro-proiektuen garatzeko.

Trinational de Bâle Eurodistriria (2007)

Zuzenbide frantseseko elkarte honek Suitza, Alemania eta Frantziaren arteko mugako 62 kide biltzen ditu:

- Suitzako kantonamenduetako udalak
- Alemaniako udalak
- Frantziako herri elkargoak, baita Haut-Rhin Kontseilu orokorra eta Alsaziako eskualdea.

Ekip0 teknikoak Frantziako Village Neuf herrian kokatzen da.

Hauek dira Eurodistriru honen lan arloak: lurralde antolaketa, mugikortasuna, zerga mailako kooperazioa eta herritarren arteko topaketak.

Laburbiltzeko, interesgarria agertzen da Karlsruheheko itunaren ikerketa, Baionako itunari alternatiba baten bilatzeko gisan⁷⁵.

Alde batetik, nortasun juridikoa duen GLCT egituraren bidez, zerbitzu publiko eta ekipamenduen kudeaketa bateratua ahalbidetzen du. Ohartu daitekeenez,

⁷⁵ Oroitaraziz Baionako itunaren aldatzeko parada badagoela bere misioen zabaltzeko, baita beste itun baten sortzeko Euskal Herriarentzat.

Kontsortzio egituraren antzekoa da, praktikan kudeaketa baino haratago joan daitekeelako hau ere. Alde horretatik, ez da aldaketarik Baionako itunari erkatuz.

Baina bestalde, Karlsruheheko itunak nortasun juridikorik gabeko egituren sortzea ere ahalbidetzen du, eta ematen du egitura horiek oso malguak direla, egitasmo anitzentzat erabili daitezkeelako. Egitura mota hori da preseski eskas agertzen Baionako itunaren esparruan.

B.1.5- North South Ministerial Council (NSMC)

North South Ministerial Council (NSMC) Kontseilua sortu zen Belfast-en 1998an, Ostiral Sainduko Hitzarmenaren ondotik, kontsulta, elkarlana eta ekintza batzuen garatzeko Irlanda uhartean, batez ere mugaz haraindiko lankidetzaren bidez.

Irlandako Errepublikako gobernuak eta Ipar Irlandako lehenministroak elkarrekin izendatutako organoa da.

NSMC Kontseiluaren kideak mugaldeko bi Administrazioetatik datoz –batez ere Ipar Irlandako ministroak eta Irlandako gobernuak-. Bestalde, mugaz haraindiko idazkaria du.

Lankidetzarako arloak⁷⁶

Kontseilu horren helburua interes komunaren inguruan lan egitea da, administrazio bakoitzaren gaitasunen arabera.

Hona lankidetzaren 6 arlo nagusiak:

- *Nekazaritza*: Europar Batasunaren mailako Nekazaritza Politika Komunari lotutako kontuak, landare eta abereen osasun politikak eta ikerketa eta baserriaren garapena.
- *Hezkuntza*: behar berezituak dituzten haurren hezkuntza, eskola porrota, irakasleen kalifikazioen kudeaketa, ikasle eta irakasleen arteko harremanak.
- *Ingurumena*: ingurumenaren babesa, poluzioaren erronkari aurre egitea, uraren kalitatearen kudeaketa eta zaborren kudeaketa mugaz haraindiko egoeran.

⁷⁶ Nahiz eta Ipar eta Hego Irlandaren artean politika komunak badiren, iduriz haien betetzea zatitua da, mugaldeko parte bakoitzak bere aldetik betetzen baititu.

- *Osasuna*: istripu eta larrialdi plangintza, goi-mailako teknologien inguruko lankidetzak, minbiziari buruzko ikerketa eta osasunaren sustatzea.
- *Turismoa*: Irlandako ugartearen ezagutaraztea itsasoz haraindian destino gisa, Tourism Ireland izeneko erakunde berezituaren bidez.
- *Garraioa*: plangintza estrategiko baten inguruko lankidetzak, baita bide eta burdinbideen azpiegiturak eta haien segurtasuna, garraio publikoak.

Organoaren funtzioak

- Nabigagarri diren sareak kudeatzen ditu nagusiki, aisialditarako itsas-ontzientzat.
- Bestalde, elikaduraren segurtasunaren inguruan ere lan egiten du, bereziki ikerketa zientifikoari eta komunikazioari dagokionez.
- Merkataritza sustatzen du mugaz haraindian baita ugarte guztiko lehiakortasun orokorra indartzen, mugaldeko parte bakoitzaren irabazien alde.
- EB-ren diru laguntzak elkarren artean kudeatzen eta zaintzen dira, batez ere PEACE III eta INTERREG IVA programak.
- Hizkuntzaren sustatzea⁷⁷, erran nahi baita azterketa, zaintzea, garapena eta erabilera, hizkuntza bizidun gisa. Hizkuntzari lotua den kultura osoaren garapena ere sustatzeko xedea du, jakina.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta Ipar eta Hego Irlandaren artean politika komunak badiren, badirudi haien betetzea zatitua dela, mugaldeko parte bakoitzak bere aldetik betetzen baititu.

Izan ere, begi bistakoa da Irlandako Kontseilua zerbitzu publikoen kudeadeta bateratua baino askoz haratago doala, lurraldearen garapenerako tresnak eskainiz hainbat arloetan. Haatik, ez da lurralde ordezkarietan oinarritzen, hautetsiak baino gehiago funtzionarioak dutelako Kontseilua osatzen; alde horretatik, ez da Karlsruheeko ituna bezain demokratikoa agertzen.

⁷⁷ Eremu horretan bi hizkuntza erabiltzen dira: galeiko irlandesa eta Ulster-eko eskoziarra da. Ulster Ipar Irlandako probintzia historikoa da, non kokatzen den Belfast hiri burua.

Itxura guztien arabera, erran daiteke Karlsruheheko ituna ala NSMC konbentzioa Baiona eta Valentziako itunak baino askoz aukera gehiago eskaintzen dituztela. Alde batetik, ez dute zerbitzu publikoen kudeaketa soilik bermatzen baizik eta lurraldearen garapena lantzea, azterketak eta planak eginez. Horrela, itun horien esparruan, politika publikoak diseinatu, kudeatu, finantzatu eta ebaluatu daitezke hainbat arloetan. Bestalde, bi itun horien esparruan, batzar batek mugaz bi aldetako erakundeetako ordezkariak biltzen ditu. Beraz, nolabait lurralde ordezkari bat bermatzen dute, Baiona eta Valentziako itunek ez bezala.

C- Nazioarte mailako tresnak

Nazioarte mailan izenpetua izan da Isselburg-Anholt ituna⁷⁸ Belgikaren, Herbehereen eta Alemaniaren artean, eta 1993tik indarrean da⁷⁹. Itun hau Vienako Hitzarmenei lotua da eta ez du zerikusirik ez Europar Batasunarekin, ez eta Europar Kontseiluarekin. Erran daiteke aldebiko itun honek duela aukera gehien eskaitzen.

Itun honek, agintari deszentralizatuen artean zuzenbide publikoko mugaz haraindiko lankidetzak garatzea du helburu nagusizat –Estatu bakoitzaren legea errespetatuz–.

Eman dezagun, Herbehereetako udal eta probintziek parte hartu dezakete, baita erakunde publikoek. Zuzenbide pribatuko pertsonak ere parte hartu dezakete.

Isselburg-Aholteko ituna interesgarriena da, bai lurralde garapena baita lurralde ordezkariak bermatzen baititu. Hain zuzen, hiru mugaz haraindiko lankidetzak eredu proposatzen ditu:

- *Nortasun juridikorik gabeko udalen arteko lantaldea*: lankidetzak honek indar gutxi dauka, kasik adostasun sinplea da. Mugaz haraidiko erakundeak hartzen dituen erabakiak ezin dira lotesleak izan bere kideentzat ez eta bitartekoentzat.
- *Udalen arteko sindikatua*: zuzenbide publikoko erakundea da. Sindikatu horren esparruan hartzen diren erabakiak, lege nazionalen pekoak dira –beraz behar dute lege nazionala errespetatu–. Aginte publikoko eskumenik ez dauka eta bere kideek ezin dizkiote gaitasunak transferitu.
- *Zuzenbide publikoko hitzarmena*: lurralde erakunde batek bere gaitasunak atzerriko erakunde publiko bati transferitzea ahalbidetzen du, adibidez mandatu baten bidez. Gaitasun transferentzia hori lurralde erakundearen kideek zaintzen dute.

Izan ere, egitura publikoek ezin dituzte erabaki lotesleak ez eta betebeharrak inposatu herritarrei. Hain zuzen, eskubide eta betebeharrak sortu daitezke parte-hartzaileen artean, baina ezin dituzte bitartekoei inposatu.

⁷⁸ *Tractatenblad 1991/102, entrée en vigueur le 1er janvier 1993, Trb. 1992/207.*

⁷⁹ EUREGIO Gronau euroeskualdearen sortea ahalbidetu duena: ikus II-B, euroeskualdeen zerrenda.

Itun horren aplikatzeko, Alemaniak bere Konstituzioa aldatu behar izan zuen. Orain, Konstituzioaren 24. artikulua baita, Estatu federalak mugaz haraidiko lurralde erakundeei soberania transferitu dezake⁸⁰. Aldaketa horrek aukera asko sortzen ditu beraz, lurralde erakundeei mugaz haraindi erabakitzeko eskubidea eskainiz.

Itun hau mugaz haraindiko lankidetzat mailako zaharrentariki bat da eta iduriz, eskumen mailan zabalena. Baina ematen du Europako legeak sortu direnetik – Bigarren Mundu Gerraren ostean- itun hori ahaztu dela. Izan ere, komeni litzateke itun hori gehiago ikertzea, ikusteko zein aukera eskaini ditzakeen gaur egun eta nola erakarri daitekeen Euskal Herrira.

⁸⁰ David Strazzari, "Harmonizing Trends vs Domestic Regulatory Frameworks: Looking for the European Law on Cross-border Cooperation" *European Journal of Legal Studies* 2011, Vol. 4, Issue 1 (Summer 2011), p.151-203.

II- euroeskualdea: orain arteko esperientzia

A- Euroeskualdearen bilakaera, definizioa, ezaugarriak

A.1- Zer da euroeskualdea?

Mugaz haraindiko lankidetzan aritzeko egitura europarra da, gutxienez bi Estaturen artekoa⁸¹. Printzipioz, euroeskualdeak ez du gobernu bat osatzen, ez du botere legegile propiorik alegia; bere gaitasunak, osatzen duten erakundeen gaitasunetan mugatzen dira.

Mugako bi aldeetako lurralde erakundeak elkartzen dira, interes amankomunen bultzatzeko eta guztien ongiaren alde lan egiteko gisan. Mugaz haraindiko gaitasun, baliabide eta eragile ezberdinen arteko lankidetzatza da. Estatuak ere eragile izan daitezke.

Hau dela eta, badirudi euroeskualdearen esparruan botere politiko batzuk hedatu daitezkeela –adibidez kontsulta batzuen egiteko boterea-.

Azken finean, erran dezakegu euroeskualdea kontzeptua oso orokorra dela. Funtsean, hainbat egitura juridiko ukan ditzake, izan pribatu ala publikoak.

2004n, Europako Parlamentuak ebazpen bat argitaratu zuen⁸², euroeskualdeen funtzioa argitzeko eskualde politikaren garapenean. Garai horretan, GECT egitura ez zen oraindik sortua baina jadanik proposamen bat egin zuten egituraren sortzea prestatzeko. Lehenbizi, ebazpenaren autoreek nabaritzen dute Europako eskualdeen desorekak handitzera doazela Europar Batasunaren hedatzearekin batera. Gogoratzen dute euroeskualdeen garrantzia mugaz haraindiko lankidetzan eta ondorioz, Europar Batasunaren integrazioarako. Hau dela eta, azpimarratzen dute euroeskualdeak osatu daitezkeela mugaz haraindiko lankidetzan aritzeko, ez Estaturen bidez soilik baizik eta tokiko agintari, eragile sozial eta beste hainbat eragileen bidez.

⁸¹ Nahiz eta “euroeskualde” hitza mugaz haraindiko lankidetzari lotua izan, ez du erran nahi Europako eskualdeetaz ari garela, baizik eta mugaz haraindiko bi lurraldeen arteko elkarlanaz, Europa mailan.

⁸² K. Triantaphyllides, *Comisión de Desarrollo Regional, Informe sobre la función de las “euroregiones” en el desarrollo de la política regional (2004/2257 (INI))*.

Ondotik, aipatzen dute “euroeskualde” kontzeptuaren hedatzeko xedea, mugaz haraindiko lankidetzaren aspektu guztiak kontuan hartzeko gisan, izan kulturaren promozioa, hezkuntza, turismoa, ekonomia ala delituen aurkako borroka. Azken finean, GECT moduko egitura baten sortzeko beharra agertzen zen.

Ondorioz, erran daiteke GECT figurak euroeskualdeen garatzea laguntzen duela, nahiz eta beste xede batzuei jarraitu dezakeen. Hain zuzen, argi da euroeskualdeen bidez garatzen den mugaz haraindiko lankidetzaren ez dela operatiboa baizik eta estrategikoa, politikoa. Errate baterako, eskualde ala toki mailan erabakitzea da euroeskualdeen helburua, hainbat politika publiko komunean diseinatuz, kudeatuz eta ebaluatuz.

C.2- Zeintzuk dira euroeskualdeen ezaugarriak eta baldintzak?

Europako auzo diren eskualdeen elkartearen baitan⁸³, euroeskualde izateko, baldintza batzuk bete behar dira:

- Muga-gaindiko tokiko ala eskualdeko agintarien arteko elkarte bat osatzen da, batzuetan parlamentuaren adostasunarekin.
- Muga-gaindiko elkarteak da, muga-gaindiko idazkaritza batekin eta baliabide propioak dituen muga-gaindiko ekipo tekniko eta administratibo batekin.

Batetik, zuzenbide pribatuko egitura izan daiteke, irabazi-asmorik gabeko elkarteetan ala fundazioetan oinarritua. Bestetik, zuzenbide publikokoa ere izan daiteke, Estatuaren arteko akordioetan oinarritua, lurralde erakundearen parte hartzea bermatzeko.

Euroeskualdeek izen hauek ukan ohi dituzte: *euregio*, *euregion*, *eurometropoli*, *europaregion*, *eurometropoli*, *grand region*, *regio* ala *council*.

Dena den, zaila agertzen da euroeskualdea esparru legal bati lotzea, batez ere Europako mugak oso ezberdinak direlako. Hau dela eta, euroeskualdeak oso ezberdinak izan daitezke.

Azpimarratu behar da eskualde eta autonomia erkidegoek ez direla parte-hartzaile bakarrak, euroeskualdeen definizioaren arabera, tokiko eskualde eta agintariak ere parte hartu dezaketelako -udalek alegia-. Horrez gain, euroeskualdea izan daiteke zuzenbide pribatukoa zein publikokoa:

⁸³ *Asociación de Regiones Europeas Fronterizas (ARFE)* erdaraz, edo *Association of Europe Border Regions (AEBR)* ingeleraz. Elkarte horrek, Europako mugaz haraindiko lankidetzaren erakunde guztiak biltzen ditu, bakoitzaren esperientziak trukatzeko gisan.

C.2.1- Zuzenbide pribatuko egitura

Erran behar da anitzetan zuzenbide pribatuko egiturak aukeratzen zirela – batez ere elkarte eta fundazioak- beste aukerarik ez zegoelako, batez ere GECT egitura oraindik ez zegoelako.

Oro har, bi egitura pribatu mota daudela⁸⁴:

- Tokiko agintariei lotuak ez direnak -adibidez elkarte bat kulturaren arloan-.
- Tokiko agintariei lotuak direnak, batez ere politika mailan kontsultak egiten dituztenak -artetik errateko, horiek parte hartu dezakete GECT egitura batean, besteek ez bezala-.

Adibidez, Mosa-Rhin Euroeskualdeak fundazio egitura pribatua aukeratu zuen 1991ean, Belgika, Holanda eta Alemaniaren mugako lurralde erakundeak batuz.

Horrelako egitura pribatuak abantaila anitz dauzka. Lehenik, kontratu moduko batean oinarritzen denez, oso erraza da ezartzeko. Bigarrenik, bere kideei bereizitako denez, ekintzen koordinaketarako egokia da, baita muga-gaindiko lurraldea munduaren aurrean ordezkatzeko. Azkenik, azpimarratu behar da egitura pribatuak bereziki egokiak direla elkarrizketarako, baita politiken ebaluatzeko eta lobby lana egiteko.

Halaber, erran behar da ekintzen bideratzeko anitzetan egitura pribatuak nahiko mugatuak direla, batez ere ezin dutelako ondare komun bat kudeatu ez eta tokiko agintarien ordezkariak erabili eta Estatuak ezin dietelako proiektuen kudeaketa delegatu.

Zuzenbide pribatuko figura ezagunena elkarteak da. Oro har, figura interesgarria da oso erraza delako sortzea ala desegitea eta funtzionamendu mailan oso malguak delako. Alabaina, oraindik ez da Europa mailako elkarerik, nahiz eta 1992-tik halako proiektua baden. Hau dela eta, mugaz harandikoko lankidetzan aritzeko, Estatuak elkarte egituretan oinarritu behar da.

Frantzian, 1901 legeak arautzen du⁸⁵. Lege honen baitan, elkarte egitura erabili daiteke mugaz harandikoko lankidetzarako. Haatik, atzerriko lurralde erakundeek ez dezakete horrelako proiektu batean parte hartu haien Estatuak legeak onartzen badu baizik.

⁸⁴ Council of Europe, *Practical guide to transfrontier cooperation*, 2006.

⁸⁵ Orain: L. N°81-909, 9 oct. 1981.

Zuzenbide pribatuko tresna iraunkor eta autonomoa da, nortasun juridikoa duena. Horrez gain, nahiz eta figura pribatua den, bere kideak zuzenbide publikoak izan daitezke, lurralde erakundeak eta tokiko agintariak alegia.

Irabazi-asmorik gabeko ekintzentzat tresna egokia da. Alde batetik, erran behar da errazki sortu daitekeela eta bere erabilera oso malgua duela. Gainera, oso zabala da, elkarte mota asko izan daitezkeelako.

“Elkarte administratibo” delakoak lirateke interesgarrienak Euskal euroeskualde bat bilatzerakoan. Elkarte administratibo deitzen zaie pertsona publikoaren boterea nagusitzen denean. Horrek erran nahi du batez ere kontratu publikoen izenpetzeko gaitasuna dutela⁸⁶. Hala eta guztiz ere, kontuz ibili behar da elkarte figuraren erabilearekin garapen mailan, preseski anitzetan eragileek ez dutelako kontratazio publikoa menperatzen.

Adibidea

Association de l'agglomération transfrontalière du PED de Longwy (1996) : Elkarte honek Frantzia, Belgika eta Luxenburgoko tokiko hautetsi eta administrazioak biltzen ditu (hiri elkargoak, Belgikako eskualde bat, Luxenburgoko barne-ministerioa, Frantziako Prefeta eta departamendu bat).

Elkarrizketa eta adostasunaren esparrua osatzen du, lurralde erakundeen artean lurralde antolaketari buruzko politika komuna definitzeko.

C.2.2- Zuzenbide publikoko egitura

Zuzenbide publikoko egiturak aldiz aukera gehiago eskaini ditzake, batez ere proiektuen garatzeko eta kudeatzeko egokiago delako. Baina horrek ez du erran nahi aterabide perfektua denik. Anitzetan, kontua da erakunde horiek jarraitzen zuten zuzenbide sistema ez zela aski malgua. Horrez gain, erran behar da mugaz bi aldeetako lurralde erakundeek arau ezberdinei jarraitzen dutela ekintza garrantzitsuen antolaketa eta kontrolari dagokionez. Eta nahiz eta aldebiko itunak dauden, arazo horiek jarraitzen dute arau anitz ez direlako armonizatuak Europa mailan –bereziki arlo sozialean eta fiskalean-⁸⁷. Ondorioz, egitura publikoek

⁸⁶ Kontratazio publikoa esaterako, EB-ko 200/17 eta 2004/18 zuzentarauetara jarraitzen duena. Oro har, kontratu publikoak merkatuaren legearen peko jartzea da arau honen helburua, lehiakortasunaren bermatzeko gisan.

⁸⁷ Izan ere, GECT egitura garatzen ari denez gero, Europar Batasuneko Estatuaren arteko arau batzuk erregulatu ditzake, batez ere estatutu, funtzio eta lege aplikagarriari dagokionez. Gainera, nola Espainiak Madrileko itunari lotutako protokoloak ez dituen sinatu, GECT figura hutsune juridiko horren betetzera dator.

elkarren artean proiektuen garatzea ahalbidetu dezakete, baina aldi berean erabakitzeke ahalak eta gaitasun politikoak gutxitu ditzakete⁸⁸.

Izan publiko ala pribatu, zaila agertzen da euroeskualdearen gaitasunen definitzea.

Gorago erran bezala, GECT egiturak maila ezberdinetako lurralde erakundeen arteko mugaz haraindiko lankidetzak ahalbidetzen du. Errate baterako, eskala ezberdineko bi lurralde erakunde ezberdinek haien gaitasunak elkartu ditzakete. Alabaina, horrek ez du erran nahi elkarrekin batuz gaitasun eremu zabalgo bat sortzen dutela, ez dituztelako gaitasun amankomunak baizik elkartzen⁸⁹. Konkretuki, horrek erran nahi du Iparraldeak ezin izango duela botere legegilea eskuratu Euskadirekin lankidetzan arituz adibidez.

Nahiz eta ezberdintasun administratibo anitz dauden mugako bi aldean artean, printzipio administratibo komunak definitu daitezke.

Laburbilduz, euroeskualdea lurralde erakunde eta tokiko agintarien artean osatzen den erakunde orokorra da. Oso malgua da: oro har, eraiki daiteke GECT figuraren bidez, baita partzuergoaren bidez ala sinpleki, elkarte baten bidez.

Euroeskualde kontzeptua definituz gero, beharrezkoa da euroeskualde nagusien zerrendatzea, agerian emateko bakoitzaren gaitasunak eta mugak.

B- Euroeskualde ereduak

Europar zehar laurogeita hamar bat euroeskualde dira orotara. Esperientzia bakoitzak erakusten digu behin eta berriz euroeskualde kontzeptua oso zabala dela eta ondorioz, egokitu daitekeela lurralde bakoitzaren beharren arabera. Hau dela eta, bereziki nabaritu behar dira lurralde ordezkartzan oinarritzen diren euroeskualdeak eta politika publikoen lantzea lortu dutenak.

⁸⁸ S. Beltrán García, “*La cooperación transfronteriza e interterritorial: un clásico renovado*,” REAF 4/2007.

⁸⁹ Ideia hau, izendatzaile komun txikiaren printzipioa da (*principe du plus faible dénominateur commun*).

B.1- Espainia/Portugal muga

B.1.1- Eixo Atalático do Noroeste Peninsular⁹⁰

1992an sortu zuten euroeskualde hau, 1980ko Madrilgo Itun markoan oinarrituz. Galizia eta Ipar Portugalen arteko mugako 12 udal biltzen dituen elkarte da, hots, zuzenbide pribatukoa. Gero, 2000.urtean, integratu dute mugaz haraindiko egitura zabalagoa, Comunidad de Trabajo Galicia-Norte de Portugal⁹¹. Horrela, bi egiturak elkarren artean osatzen dira, bata bestea tratatu gabe.

Hauek dira egitura honen lan arloak: azpiegiturak, garraioak, hiri garapena, ingurumena, turismoa, kirola eta kultura. Ohartu daitekeenez, arlo anitzak ditu. Horrek erakusten du Eixo Atalático-ren xedea ez dela soilik operatiboa. Hain zuzen, erran daiteke xede handiagoak dituela, estrategia politiko bati jarraitzen dutenak.

Erran daiteke egitura honek lankidetzaren arrakastatsua lortu duela, hasieratik udal anitz proiektuari gehitu baitira. Gaur egun 34 kide dira orotara. Ondorioz, pentsatzen ari dira GECT figura juridikoaren hautatzeari.

Hau dela eta, badirudi Ipar Portugalen eta Galizian baldintza politiko-instituzionalak betetzen dituztela mugaz haraindiko lankidetzaren garatzeko eta indartzeko gisan. Alabaina, erran behar da badela mugaz haraindiko lankidetzaren baitan sineste komun bat eta horrek lankidetzaren anitz laguntzen duela.

B.1.2- AECT Galizia – Ipar Portugal

GECT egitura hau 2008-ko irailean sortu zen Galiziako gobernua eta Ipar Portugalgo Eskualdearen Koordinazio eta Garapenerako Batzordearen artean⁹². Muga horretako lurraldearen kohesio sozio-ekonomikoa du helburutzat. Zentzu horretan, Europa 2020 estrategiari jarraitzen du.

⁹⁰ Zehaztu behar da Galicia-Norte de Portugal “euroeskualde” deitzen den egitura honek - *Eurorrexión Galicia-Norte de Portugal*-muga-gaindiko egitura anitz biltzen dituela. Errate baterako, muga horretan harremanak dinamikoak izanik, hainbat mugaz haraindiko lankidetzarako erakunde dituzte eta azken finean, erran ohi da Galicia-Norte de Portugal euroeskualdea osatzen dutela.

⁹¹ 1991-ako urriaren 31-an sortu zen, España eta Portugal Europako Erkidegoan sartu eta, beren arteko harreman sozio-ekonomikoak garatzen hasi zirenean. Gaur egun, 2002-ko Valetziako ituna du lege oinarritzat. Egitura horrek mugaz haraindiko eragile pribatu zein publikoen arteko harremanen sortzea eta garatzea lantzen du eta horrela, *Galicia-Norte de Portugal* euroeskualdearen garapena sustatzen du.

⁹² *Comisión de Coordinación y Desarrollo Regional-Norte* (CCDR-N).

Nola GECT egitura aukeratu duten, nortasun juridikoa du, gaitasun juridiko gorenarekin, baita aurrekontu propioarekin –kide bakoitzaren partaidetzaren bidez-. Bere iraupena mugatua ez denez, epe luzerako proiektu estrategikoen gauzatzeko aukera ematen du.

Euroeskualde horren lan arloak zabalak dira: turismoa, ekonomia, lana, enplegua, lehiakortasuna. Bestalde, egitura garrantzitsuak ditu, batez ere 6 unibertsitate eta nanoteknologia institutua; berrikuntza eta ikerkuntzaren oinarrik dira. Horrela, hazkunde iraunkorra bilatzen du.

Estrategia honen bidez, euroeskualde honen helburu nagusia lehiakortasuna azkartzea eta enpleguak sortzea da, baita ingurumenaren babesaren alde lan egitea. 2012 -an, konferentzia bat antolatu zuten sorkuntza eta kulturari buruzko industriei buruz eta beste bat osasunaren inguruan proiektuen sortzeari buruz. Horretarako, sektore estrategiko batzuk hautatu dituzte, batez ere erainkuntza, itsas-ontzi eraikuntza, osasuna eta turismoa.

Bestalde, eragile ezberdinak mahai-inguru batean biltzen dira, Komite exekutiboan. Tituluen homologazioa lortu dute. Jose Liron Lago GECT honetako lehendakariak dionez, garrantzitsua da eragileak elkarren artean ongi ezagutzea, izan epe motzerako, ertainerako ala luzerako lankidetzan aritzeko.

Halere, muga batzuk daude oraindik. Alde batetik, herri txikiek ez dute baliabide aski beren mugaz haraindiko proiektuen bideratzeko. Bestalde, kostaldea oraindik barnealdea baino askoz garatuagoa da –Euskal Herrian bezala alegia-.

Itxura guztien arabera, eredu hori erakarri daiteke Euskal Herrira, horrelako lankidetzaz sortuz EAE eta Iparraldeko Garapen Kontseiluaren artean adibidez, sektore estrategiko batzuetan oinarrituz.

B.1.3- AECT Duero-Douro

GECT hau 2009ko martxoaren 14an sortu da. Espainiako Zamorako eta Salamancako diputazioek osatzen dute batetik eta Portugaleko Douro Superior, Beira Interior Norte eta Alto Trás-os-Montes distrituek bestetik. Salamancan du egoitza, hots, zuzenbide Espainoleko egitura da –nahiz eta lehenik Europa mailakoa izan-.

Egitura interesgarria da, lurralde ordezkartzan oinarritzen baita. Orotara, 188 lurralde elkargo biltzen ditu eta haietarik 107 udalak dira. Hain zuzen, udalen arteko lankidetzaz da areto nagusia. Horrez gain, badirudi politika publikoen lantzeko esparrua dela. Hain zuzen, hauek dira bere lan arloak: aukeraberdintasuna, garapen ekonomikoa, ikerketa, berrikuntza eta tokiko garapena, teknologia berriak, hezkuntza, ikastaroak eta lana, ingurumena, garapen iraunkorra, nekazaritza, abereen osasuna, zerbitzu eta ekintza sozialak.

Ohartu daitekeenez, egitura honek politika publikoen lantzeko esparrua osatzen du. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da horrelako epe luzerako egitasmoei jarraitzea ez dela gauza erraza eta udalen parte hartze aktiboa eskatzen duela.

B.2- Regio Trirhena

1996ko Karlsruheheko itunak arautzen du Frantzia, Alemania eta Suitzaren arteko mugan kokatzen den euroeskualde hau –Ipar Renanian alegia-. Bestalde, Estatuaren arteko beste hitzarmenetan ere oinarritzen da⁹³, auzo harremanen kudeatzeko eta mugaz haraindiko lankidetzaren bultzatzeko gisan.

Muga honen esperentziaz ere anitz ikasi daiteke. Hain zuzen ere, Europaren eraikuntza muga honetatik hasi den bezala, mugaz haraindiko lankidetzak ere hor ditu egin lehen urratsak, 1960 urteetan. Horrez gain, muga honek berezitasun bat dauka: Alemania eta Suitza Estatu federalak direnez, iduriz mugaz haraindiko lankidetzaz gutxi arduratzen dira. Halere, hein batean parte hartzen dute, bereziki haien zerbitzu deskonzentratuen bidez, gai zehatz batzuetan berezituak direlako, hara nola energia nuklearra, ingurumena, garraioak eta fiskalitatea.

Eskualde mailan, hiru egitura arduratzen dira mugaz haraindiko lankidetzaz:

- Ipar Renaniako Konferentzia (1975). Erran daiteke egitura hau muga honetako kooperaziorako esparru instituzionala dela. Estatuaren delegazio ezberdinez osatzen da: Frantziako Eskualde Kontseilu eta Kontseilu orokorrak, Suitzako kantonamenduak eta Alemaniako Länder-ak. Bere helburu nagusia mugako metropolien garapen iraunkorra sustatzea da, baita lankidetzaren mailaren hobetzea eta ezagutzen transferitzea mugak gaindituz.
- Renaniako Kontseilua (1988). Ordezkaritza eta eztabaida politikorako egitura da, Ipar Renaniako lurralde erakundeetako hautetsiak biltzen dituena, bai eskualde mailakoa, baita maila apalagokoak ere.
- Hiruko kongresua (1998). Kongresu horiek eskualdeko ordezkarien, administrazioaren, gizarte zibilaren eta medioen arteko trukaketa plataforma osatzen dute. Horrela, gizartearen eragile ezberdinek parte hartzen dute, izan eragile politiko, ekonomiko ala zientifikoek, baita gizarte zibilak. Haien arteko harremanen sendotzea da helburua, Ipar Renaniaren ahalmen sozio-ekonomiko baita ingurumenari lotutako indartzeko gisan eta azken finean, muga horretako Europa eta nazioarte mailako lehiakortasuna hobetzeko gisan.

⁹³ *Commission intergouvernementale franco-germano-suisse (1975), Dialogue franco-allemand sur la coopération transfrontalière (2009), organe commun entre le Rhin supérieur et la Grande Région.*

Bestalde, tokiko lurralde ordezkartzari dagokionez, badirudi udal batzuk oso aktiboak direla mugaz haraindiko lankidetzan, batez ere Estrasburgo, Mulhouse, Basilea eta Khel. Udal horiek lau euro-distritu osatzen dituzte⁹⁴.

Halere, agertzen da egitura ezberdin horiek ez dutela harreman handirik beren artean ez eta muga horretako eurodistrituekin.

B.3 EUREGIO

EUREGIO Gronau euroeskualde zaharrena da, 1958an sortua Belgika, Holanda eta Alemaniaren artean. Tokiko auto-antolaketa du helburutzat. Erran daiteke horrelako lankidetzak lortu dezakeela Europar Estatu kideek mantentzen dituzten muga eta traben desagerraraztea⁹⁵.

EUREGIOk elkarte baten forma juridikoa du. Baina bere eskumenak oso zabalak dira, hain justu, gorago aipatutako Isselburg-Anholteko itunean oinarritzen baita. Horrela, legebiltzar baten osatzea lortu dute.

Horrez gain, erran behar da EUREGIOk arlo anitzetan eragin duela eta lurraldearen garapena bultzatu duela, bereziko ekonomia eta sozial mailan.

EUREGIO nola egituratzen da?

- *Asanblada*: Udal, hiri eta arrondizamendu guztiak EUREGIOren Asanbladan ordezkatuak dira.
- *Kontseilua*: 41 kide holandes eta 41 kide aleman biltzen ditu.
- *Batzordea*: EUREGIOren burua da, erakundearen exekutiboa.
- *Idazkaritza komuna*: gutxienez 30 langile ditu. Alemaniako Gronau hirian du egoitza.
- *Lan talde ezberdinak*: EUREGIO lan talde berezituak ditu. Talde horietan biltzen ohi dira talde sozialak, erakunde eta instituzio ezberdinak. Mozer deitutako lan taldeak paper berezia betetzen du sozial eta kultural mailan, batez ere kirola eta artearen inguruan.

94 Ikus I- B) 4°): *Eurodistrict Strasbourg-Ortenau* eta *Eurodistrict Regio Pamina*.

95 EUREGIO egiturak Europar Batasunaren integrazioa lagundu du. Jakina, merkatu bateratu baten osatzea da Europar Batasunaren xede nagusia, mugak gaindituz eta horrela, ahal bezain integrazio zabala lortuz. Halere, nabari da integrazio hori ez dela oraindik nahi bezainbat burutua, Estaturen arteko egitura eta lege ezberdinengatik. Beraz lehen euroeskualde honen xedea ez zen bakarrik tokiko garapenaren aldekoa baina askoz zabalagoa, Europa osoko xedea.

Zein dira EUREGIOren eginkizunak?

- *Sozio-kultura mailako lankidetzak*: mugaldeko bi lurraldeen elkar ezagutzaren bultzatzea, aurreiritzien bultzatzeko. Horretarako, ekitaldi ezberdinak antolatuak dira, izan eskolen artean, gazteen artean ala zaharren artean, bereziki kirola eta musika mailan -100 000 kide biltzen dira orotara- .
- *Garapen sozio-ekonomikoa*: tokiko egitura ekonomikoaren iraunkortasunaren sustatzeko, bereziki enpresa txiki eta ertainen kasuan. INTERREG IIIA programaren bidez finantzatua da –gutxienez 48 milioi €-. Alemania eta Holandako Ekonomia ministroak dira horretaz arduratzen, baita bi probintzia.
- *Udalen arteko lankidetzak*: Adibidez, larrialdi zerbitzu eta su hiltzaileen arteko lankidetzak izan daitezke. Lankidetzak hori Estatu mailako lankidetzak baino askoz egokiagoa bezala agertzen da. Gainera, EUREGIOren barruan eztabaida anitz izaten dira, batzuetan nazioarteko ekipa batzuen laguntzarekin.
- *Aholkularitza zerbitzuak*: Herritar eta enpresen informazioa bermatzen dute, mugaz haraindiko bizitza eta lanari buruz.
- *Eskualdeen arteko lankidetzak*: Europako MHLE ezberdinen artean ideiak eta esperientziak partekatzea da helburua, ARFE elkartearen bidez⁹⁶.

Nola eredu hau esportatu Euskal Herrira?

Euskal Herriaren eremua EUREGIOrena baino bi aldiz handiagoa da (20 950,3 km²) eta biztanleriaren kopurua berdintsua du. EUREGIOk¹²⁹ udal biltzen ditu. Euskal Herriak aldiz 695 udal ditu orotara, 7 probintzietan banatuak eta hiru eremu administratibo ezberdinetan banatuak: EAE, NFK eta Iparraldea.

Euskal Herriak EUROREGIO eredutzat hartzeko, lehen bai lehen lortu behar lirateke agintari batzuk mobilizatzea bai politika mailan, baita ekonomia mailan ere. EUROREGIOan lan anitz egin da berrikuntza, ikerkuntza, zientzia eta teknologiaren alorretan.

⁹⁶ Artetik errateko, EUREGIOk parte hartu zuen elkarte horren sortzean eta ARFE-ren egoitza EUREGIO-ren egoitzaren hirian kokatzen da, Gronau-en. Urtero, Europa osoko MHLE ezberdinen buruzagiak han biltzen dira.

B.4- Euregio Mosa-Rihn

Euroeskualde hau ere zaharrenetariko bat da, 1976an sortua, lau eskualde mugakideen artean –ondotik Belgikako Komunitate alemana batu zaie-. Hasieran, berezko elkarte zen, hots, esparru legalik gabekoa. Gero, 1991an Holandako zuzenbide pribatuko fundazioa bihurtu zen. Horrela, bere estatutuak eta konbentzioa arautuak dira eta INTERREG funtsen kudeatzeko ahalmena du. Oro har, erran daiteke egitura horrek garapen integratu bat bermatzen duela.

Hasieratik, pentsatzen ari dira egitura juridikoaren aldatzeari, figura publiko baten aukeratzeko eta gisa horretan, zilegitasuna eta irakurgarritasuna indartzeko. Alabaina, oraindik ez dira adostu eta zaila agertzen zaie adostea, batez ere ez delako itunik Estatuaren artean haien harremanen kudeatzeko - Karlsruhe eta Benelux-eko itunek ez dute euroeskualdearen eremu osoa betetzen-. Gainera, GECT egituraren hedatzeak eztabaida hori berriz piztu du. Beraz, ari dira pentsatzen GECT baten sortzeari, arlo nagusi batzuen inguruan behintzat. Entsegu bat lirateke, arlo batzuei mugatua, eta arrakastatsua agertzen bada, euroeskualde osoa GECTren barruan sartuko litzateke⁹⁷.

B.5- GECT Tirol-Hego Tirol-Trentino

Italia eta Austriaren arteko lankidetzak da. 1998an mugaz haraindiko lankidetzarako konbentzio bat izenpetu zuten euroeskualde bat sortu nahian. Gero, 2011an GECT egitura aukeratu zuten. Italiako lege aplikatzen zaio –Europar Batasuneko GECT erregelamenduaren ondotik noski-. Haatik, langile austriarrei Austriako zuzenbidea aplikatzen zaie.

Hauek dira GECT honen kideak: Innsbruck probintziako parlamentua, Bozen eskualde autonomoko parlamentua, eta Trento probintziako parlamentua. Euroeskualde hau interesgarria da preseski bere kideek botere legegilea dutelako. Lurralde ordezkartzan oinarritzen denez, ez dute nazio mailako ordezkariak erabakitzen baizik eta tokiko eta eskualdeetako ordezkariak. Horrez gain, azpimarratu behar da euroeskualde honen kide bakoitza –eskualdea eta bi probintziak- ordezkartua dela Europa mailan 2009tik, Bruselako bulego batean. Erran behar da ordezkartza hori oso eraginkorra dela, maila guztietako agintariak haien artean harremanetan baitira –tokiko maila, eskualde eta Europa maila-.

Hauek dira euroeskualde horren lankidetzak arloak: energia ekonomia, osasuna, turismoa, hezkuntza, gazteria eta ikerketa. Orohar, lankidetzak sozio-ekonomikoa eta kulturalaren indartzea da haien xede nagusia, hots, lurraldearen garapenaren alde lan egitea.

Errate baterako, energia eta aldaketa klimatikoa dira haien erronka nagusiak. Gazteen laguntzaren inguruan ere lan anitz egiten dute. Gazteak bultzatu nahi

⁹⁷ Karl-Heintz LAMBETZ den euroeskualde horren lehendakariakazaldu duenez.

dituzte Europar Batasunak eskaintzen dizkieten aukerak erabiltzen –zirkulazio librea eta barne merkatua alegia-. Horretarako, Europar Batasuneko diru funtsak erabiltzen dituzte eta, hain justu, haietariko %20-a gazteen laguntzeko, bereziki beren enpresa sortu nahi dutenentzat. Bestalde, ekitaldi asko antolatzen dituzte, biztanleen artean harremana sortzeko gisan. Orain, gazteen Parlamentu baten sortzen ari dira, Europako legeriaren aztertzekeo esparrua izan daitekeena. Azpimarragarria da nola maila sozial ezberdinetako herritarrak prozesu politiko horretan inplikatuak diren.

Bestalde, euroeskualde honen kasuan deigarria da bi Estatu jarra. Erran behar da Estatuak hainbat traba ezarri ditzaketela beren lurralde erakundearen arteko lankidetzari, batez ere beldur direlako soberania galduko dutela. Edonola ere, kasu honetan agertzen da Estatuak mugaz haraindiko lankidetzaz bultzatu dutela, nahiz eta hasieran eszeptikoak ziren.

Horrez gain, kontuan hartu behar da jadanik traba administratibo anitz izan daitezkeela berez, batez ere bi Estatu deszentralizazio sistema ezberdinagatik. Hain zuzen, alde batetik Austriak deszentralizazio prozesua oso garatua du eta bere Länder-ek autonomia zabala dute. Baina bestetik, erran behar da Italia nahiko Estatu unitarista dela. Halere, badirudi bere eskualdeetatik bostei autonomia zabalagoa eskaintzen dietela eta Südtirol preseski haietariko bat da, batez ere zerga eskubidea duelako; horrek erran nahi du baliabide propioak ukan ditzakeela, zerga bilduz bere lurraldean. Hala eta guztiz ere, Estatu italiarrak baliabide horien banaketa hurbiletik zaintzen du iduriz, baita azpiegitura proiektu ezberdinak. Gainera, Espainiak bezala Italiak ere Madrileko ituna osatzen duten protokoloak ez ditu izenpetu.

B.5- Frantzia-Espainia muga

B.5.1-Akitania-Euskadi Euroeskualdea

Baionako Itunean oinarritzen da eta berezko eskumen juridikoa du. Bere xedea, mugaz haraindiko bi lurraldeen artean elkarlanean aritzea da.

Akitania-Euskadi euroeskualdeak GECT forma juridikoa aukeratu zuen 2011an. Estatutuen baitan, arlo anitzetan eragiteko xedea du, batez ere kultura mailan: Euskara eta euskal kulturaren sustatzeko nahia adierazten du. Kontua da esparru horretan euskara ez dela turismo eta kulturari baizik lotua. Hezkuntza eta komunikabide arloetan euskarak ez dauka lekurik alegia.

Oro har, egitura hau gehiago kudeaketarako erabiltzen da eta praktikan lankidetzaz ikerketa eta unibertsitatearen inguruan egituratzen da.

B.5.2- GECT Pirinioak-Mediterrania98

1998-an sortutako euroeskualde honek lau eskualde biltzen ditu: Frantziatik Languedoc-Roussillon eta Midi Pyrénées eta Espainiatik Katalunia eta Balearrak. Europa 2020 estrategiari jarraitzen du, bereziki hazkunde globala eta iraunkorraren xedeei. Unibertsitate mailan asko lan egiten du, betez ere ERASMUS mugikortasun programak bultzatuz. Baina harago doa, bereziki berrikuntza bultzatuz. Horrela, 1400 enpresa harremanetan ezarri ditu sare baten bidez; lanbide-heziketa komunak dituzte baita datu-base komuna. Mugikortasuna, ikerketa eta berrikuntza bultzatzen dituzte nagusiki. Preseski, bakoitzak bere aldetik egin ditu ekintza batzuk eta programa operatiboetan sartu. Gero, hiru gai nagusi aukeratu dituzte: ura, nekazaritzako elikagaiak eta e-osasuna⁹⁹. Baina urrutiago joan nahi lukete. Philippe MESTRE, egitura honen lehendakariak dionez, ezin dira aktoreak elkarlanean aritzen bortxatu, baina halere balantze bat egin daiteke haiei buruz, euroeskualdeak lagundu ditzake, bereziki informazioa eta finantzazioaren bidez -adibidez Clusterrak-. Bere baitan, aski da hiru proiektu nagusien bultzatzea hasieran gero urrunago joateko gisan, GECT bat sortuz -aktoreak federatu eta alegia-.

Izan ere, egitura honek erakusten du dena formazio ala lanbide-heziketatik hasten dela, baita berrikuntzaren bidez ondotik. Ideia da lurraldearen eta bere aberastasunen ezagutza on baten lortzea.

Oro har, erran dezakegu GECT Pirinioak-Mediterranea euroeskualdearen lan arloak nahiko mugatuak direla, Unibertsitatea, hezkuntza, ikerketa eta berrikuntzaren inguruko gaiak dituelako lantzen bakarrik. Gainera, ez da lurralde ordezkaritzan oinarritzen.

98 Eskualdeen Batzordeak aurten antolatutako GECT plataforman, Philippe MESTRE, GECT honen lehendakariak, azaldu zuen egitura honen esperientzia.

99 *E-santé*: informazioa eta komunikazioari lotutako teknologien aplikazioa osasunaren arloan. Adibidez, izan daiteke medikuntzari buruzko informazioa ala mediku kontsulta bat interneten bidez.

IV. ONDORIO MODUAN

Aurreko guztia laburbilduz, erran daiteke Europako arautegi ezberdinek aukera franko eskaintzen dituztela Euskal Herrian mugaz haraindiko lankidetza garatzeko. Halaber, beharrezkoa da aldez aurretik finkatzea zeintzuk liratekeen helburuak eta proiektuan parte hartuko lezaketen eragileak.

Batetik, mugaz haraindiko lankidetza operatiboa egin daiteke egitura publiko ezberdinen bidez, bereziki zerbitzu publiko eta ekipamenduen kudeaketa bateratua.

Bestetik, Europako tresneriak eskaintzen du mugaz haraindiko lankidetza estrategikoaren eraikitzeke parada. euroeskualde baten sortzea litzateke helburua, lurralde erakundeen parte hartzearen bidez, politika publikoak lantzeko gisan. Horretarako, aukeratu behar da lege oinarri egokiena, izan Europar Batasunaren, Europar Kontseiluaren ala nazioarteko zuzenbidearen esparrukoa, bakoitzaren abantailak eta mugak kontuan hartu eta.

BIBLIOGRAFIA

1- ARAUAK

Europa eta nazioarteko itunak

- Convenio - marco europeo de 21 de mayo de 1980 sobre cooperación transfronteriza entre comunidades o autoridades territoriales, hecho en madrid el 21 de mayo de 1980.
- Tractatenblad 1991/102, entrée en vigueur le 1er janvier 1993, Trb. 1992/207.
- Tratado entre España y Francia sobre cooperación transfronteriza entre entidades territoriales, hecho en Bayona el 10 de marzo de 1995
- Accord de Karlsruhe sur la coopération transfrontalière entre les collectivités territoriales et organismes publics locaux (AKCT) du 23 janvier 1996.
- 1985eko ekainaren 25eko CEE/2137 erregelamendua.
- Règlement (CEE) n° 2137/85 du Conseil, du 25 juillet 1985, relatif à l'institution d'un groupement européen d'intérêt économique (GEIE).
- Tratado entre el Reino de España y la República Portuguesa sobre cooperación transfronteriza entre entidades e instancias territoriales, hecho en Valencia el 3 de octubre de 2002. BOE núm. 219 Viernes 12 septiembre 2003
- Règlement (CE) n° 1082/2006 du Parlement européen et du Conseil, du 5 juillet 2006, relatif à un groupement européen de coopération territoriale (GECT) [Journal officiel L 210 du 31.7.2006].
- Règlement (UE) no 1302/2013 du Parlement européen et du Conseil du 17 décembre 2013 modifiant le règlement (CE) no 1082/2006 relatif à un groupement européen de coopération territoriale (GECT) en ce qui concerne la clarification, la simplification et l'amélioration de la constitution et du fonctionnement de groupements de ce type.
- Règlement (UE) n ° 1303/2013 du Parlement européen et du Conseil du 17 décembre 2013 portant dispositions communes relatives au Fonds européen de développement régional, au Fonds social européen, au Fonds de cohésion, au Fonds européen agricole pour le développement rural et au Fonds européen pour les affaires maritimes et la pêche, portant dispositions générales applicables au Fonds européen de développement régional, au Fonds social européen, au Fonds de cohésion et au Fonds européen pour les affaires maritimes et la pêche, et abrogeant le règlement (CE) n ° 1083/2006 du Conseil.

1.1- Estatuen arauak

- Loi n° 83-597, 7 juill. 1983, relative aux SEML : Journal Officiel 8 Juillet 1983.
- Loi n° 2002-1, 2 janv. 2002, tendant à moderniser le statut des sociétés d'économie mixte : Journal Officiel 3 Janvier 2002
- Loi du 13 août 2004 relative aux libertés et responsabilités locales.
- Loi n° 2008-352 du 16 avril 2008 visant à renforcer la coopération transfrontalière, transnationale et interrégionale par la mise en conformité du code général des

collectivités territoriales avec le règlement communautaire relatif à un groupement européen de coopération territoriale.

- Real Decreto 37/2008, de 18 de enero, por el que se adoptan las medidas necesarias para la aplicación efectiva del Reglamento (CE) n.º 1082/2006, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de julio de 2006, sobre la Agrupación Europea de Cooperación Territorial (AECT).

- Décret n° 2012-91 du 26 janvier 2012 relatif aux groupements d'intérêt public.

2- DOKTRINA

2.1- Liburuak

- H. COMTE, N. LEVRAT, "Aux coutures de l'Europe- Défis et enjeux juridiques de la coopération transfrontalière", L'Harmattan 2006.

-A. EMBID IRUJO, C. FERNANDEZ CASADEVATE, "Agrupaciones europeas de cooperacion territorial" Iustel 2008.

- Association of European Border Regions, Council of Europe, 2006.

- "Le droit appliqué à la coopération interrégionale en Europe", Ouvrage collectif sous la direction de la Commission de l'Union européenne (DG XVI) et de l'Assemblée des Régions d'Europe, L.G.D.J.1993.

2.2- Artikuluak

- D.FERNÁNDEZ MANJÓN, "El papel de las regiones en la dinámica fronteriza en Europa", Revista CIDOB d'Afers Internacionals, núm. 69, p. 61-88.

- H. LABAYLE "Le pays basque et l'Europe, perspectives juridiques", Contribution au Colloque de Bayonne, éditions Izpegi, 1994.

- J. BALZA AGUILERA, « La cooperación entre las Comunidades Autónomas Vasca y Foral de Navarra» Azpilcueta: cuadernos de derecho, N.º. 11, 1998, págs. 67-76.

- A. BLANC ALTEMIR, "La cooperación transfronteriza en Europa: especial referencia al marco pirenaico", Afers Internacionals, núm. 17, pp. 37-54.

- I. SANZ, "La Agrupación Europea de Cooperación Territorial (AECT): ¿Una nueva Administración Pública de Derecho Comunitario? Algunos problemas ", Revista de Derecho Comunitario Europeo, Año n.º 12, N.º 31, 2008 , págs. 673-710.

- D. STRAZZARI, "Harmonizing Trends vs Domestic Regulatory Frameworks: Looking for the European Law on Cross-border Cooperation" European Journal of Legal Studies 2011, Vol. 4, Issue 1 (Summer 2011), p.151-203.

-J. ITURRIAGA Y URBISTONDO, "El ámbito jurídico de la cooperación transfronteriza de las entidades locales españolas" Revista electrónica de estudios internacionales n.º12, 2006.

- A. HERRERO DE LA FUENTE, " La cooperación transfronteriza entre regiones europeas. En busca de un instrumento jurídico eficaz", Revista de derecho de la unión europea n.º 13 - 2º semestre 2007.

- C. FERNANDEZ DE CASADEVANTE ROMANI, "El Tratado de Baiona de 10 de marzo de 1995 sobre cooperación transfronteriza entre entidades territoriales: un marco jurídico competo, R.E.D.I. vol. XLIX (1997), 2.

- F. LETAMENDÍA, "Cooperación transfronteriza europea: regulación, historia y trabajo", Doc. Anàl. Geogr. 2010, vol. 56/1, 2009.

- E. J. MARTINEZ PEREZ, "El derecho de las entidades locales españolas a participar en los organismos de cooperación transfronteriza" Anuario Aragonés del Gobierno Local 2009.
- S. BELTRÁN GARCÍA, « La cooperación transfronteriza e interterritorial: un clásico renovado» REAF 4/2007.
- C. CANCELA OUTEDA, "La eurorregión Galicia-Norte de Portugal: un escenario de cooperación territorial", Eurorrexión Galicia-Norte de Portugal número 74 noviembre 2010 - enero 2011- Razón y Palabra.
- F. MORATA, « Euroregions i participació europea », Doc. Anàl. Geogr. 2010, vol. 56/1.
- I. ROMERO CORRALES, " Unespacio de cooperación en la frontera hispano-portuguesa", revista de estudios europeos, 56, 59-84.
- A. ROJO SALGADO, E. José Varela Álvarez, " Las eurorregiones como motores de la refundación europea: una aproximación politológica", Eurorrexión Galicia-Norte de Portugal número 74 noviembre 2010- enero 2011- Razón y Palabra.
- J. MCGARRY AND BRENDAN O'LEARY, "Consociational Theory, Northern Ireland's Conflict, and its Agreement. Part 1: What Consociationalists Can Learn from Northern Ireland", Government and Opposition 2006.

3. BESTELAKO ITURRIAK

3.1- Txostenak


- Le groupement local de coopération transfrontalière,- Enjeux et spécificités d'une nouvelle forme juridique » Euro-institut, Documentation du séminaire du 22 juin 2004.
- K. Triantaphyllides, Comisión de Desarrollo Regional, Informe sobre la función de las "eurorregiones" en el desarrollo de la política regional (2004/2257 (INI)).
- Council of Europe, Practical guide to transfrontier cooperation, 2006.
- Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre las «Eurorregiones» (2007/C 256/23).
- Espagne-France-Andorre: réalité des liens et des échanges économiques transfrontaliers, réalisée par CPC et BPC Europe, membres du réseau Europe&Territoires Conseil, en partenariat avec IDOM Consultoria, Décembre 2012.
- INTERREG EUROPE 2014-2020 Cooperation programme document final draft.

3.2- Webguneak

<http://www.aramis-fr.eu/Base-de-connaissances/func-startdown/212.html>
<https://portal.cor.europa.eu/egtc/en-US/Pages/welcome.aspx>
http://www.coe.int/T/Congress/Default_en.asp
<http://www.euregio.eu/en/about-euregio/working-fields>
<http://www.euoparegion.info/en/default.asp>

Eranskinak

Lehen dokumentua



Bigarren dokumentua:

